

hh  
hik hasi

130

4 EURO • 2008KO UZTAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



IX. Hik Hasi Udako Topaketa  
Pedagogikoak

# EZINBESTEKO HIZTEGIA HASIBERRIENTZAT

nire lehen


## HIZTEGIA



**nire lehen HIZTEGIA** hiztegi entziklopediko txiki bat da, hiztegiekin lehen harremanetan hasteko apropos-aproposa. Hemen aukeratutako 11.500 sarrerak oinarri-oinarrizkoak dira, eta aukerakoak eguneroko harremanean komunikatzeko edota derrigorrezko hezkuntzan erabiltzeko.

Sarrerak ilustratzeko eta definizioen osagarri, 1.100dik gora irudi dauzka, horiez gain, 240 marrazki, 13 mapa eta 16 horma-irudi biltzen dituen eranskina koloretan.

# aurkibidea



**6**  
gaia

## IMANOL URBIETAREN EKARPEN PEDAGOGIKOA

Imanol Urbietak musikari dagokionez lan handia egin duen erren, ekarpenik handiena pedagogian egin duela esan digute astarora eskaini behar dutenek. Josu Txapartegik, Kontxi Izarnak, Joxean Urbietak eta Iñaki Lasak Imanol Urbietaren lanaren inguruko gogoeta egin dute.



**14**  
elkarrizketa

## PATXI IZAGIRRE

suizidioa eta heriotza tabu diren gaiak dira, baina horiei buruz naturaltasunez hitz egin beharra aldarrikatu du Patxi Izagirrek. arrantzitsua izango litzateke haren ustetan, ikastetxeetan suizidioaren eta heriotzaren aurrean jarduteko protokoloa izatea.

5 editoriala

6 gaia

IMANOL URBIETAREN EKARPEN PEDAGOGIKOA

14 elkarrizketa

PATXI IZAGIRRE

22 ekarpenak  
Hezkidetza gida

24 ekarpenak  
Hazitegi proiektua

26 ekarpenak  
Balioen heziketarako ardatzak

30 ekarpenak  
Euskara, euskaldunak eta euskal zibilizazioa

32 galdeidazue  
Coachingak lagun al dezake hezkuntzan? Nola? Zer tresna eskaintzen du?  
Mirari Bereziartua eta Nerea Redondo

35 laburpenak

42 atzeko atetik  
Txitxi Orbegozo

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: IX.Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-VI-13). Kopurua: 5.000 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

# Harpidetza orria



**hik hasi<sub>k</sub>**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaitez!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitaratzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonia
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

# editoriala uztaila

## *Prestakuntzaz eta euskarazko ikastaroen eskaintzaz hainbat kontu*



*Ikastaro baten kalitatea eta egokitasuna aztertzerakoan, ikastaro hori euskaraz izatea ezinbesteko adierazle bilakatu beharko du. Hezitzailea, edukian trebatzeaz gain, jardun behar duen hizkuntzan trebatu behar baita, hezkuntzan ondorioak ikusi nahi badira, bederen.*

Inork gutxi zalantza egingo du prestakuntzaren behararen inguruan. Edonork prestatu behar du bere burua jardun bat burutu ahal izateko, eta prestakuntza horrek segida behar du, gainera.

Horregatik, azken urte hauetan berebiziko garrantzia hartzen ari da etengabeko prestakuntza, edo hainbat herrialdetako hezkuntza sistemetan jasota duten gisan, bizitza guztirako prestakuntza.

Baieztafen horrek sektore guztietarako balio du, are gehiago hezkuntzarako. Etengabe eraldatzen ari den jendar-tearen beharrak asebeteko badira, hezkuntzak adi egon behar du haietara, eta hezitzaileak prestatu egin behar du bere burua erronka berrietarako eta, haien ezaugarriak kontuan izanik, belau-naldi berriak hezteko.

Hezkuntza, gainera, une garrantzitsu eta erabakiorrean murgilduta dago. Eta zer esanik ez euskal hezkuntza. Europatik datozen gaitasunen inguruko planteamendu berriak, Estatu frantziarretik eta Estatu espainiarretik derrigorrez ezar-

tzen diren curriculamak, euskal curriculumak, hizkuntzen eta eleaniztasunaren trataera, balioen garrantzia, haurrak bere osotasunean kontuan izan eta hezteko beharra, teknologia berrien kudeaketa bidezkoa... zalantzarik gabe, bada non ekin!

Hezitzaileen prestakuntza diseinatzerakoan hainbat adierazle izan beharko dira kontuan: epe motzerako, ertainerako eta luzerako beharrak, kalitatea, aplikagarritasuna eta beste hainbat.

Kalitateari dagokionez, prestakuntzaren edukia eta formatua zaintzeaz gain, euskarazizatearen beharra azpimarratu behar da. Are gehiago, kontuan izanik, Euskal Herrian euskarak bizitzen jarraitzen duen egoera, hizkuntza gutxiagotua izaten jarraitzen baitu.

Hezkuntza alorra benetan euskaldunduko bada, eta horrek ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean euskararen ezagutza eta erabilpen mailan ondorioak izan ditzan nahi bada, hezitzaileen prestakuntza euskaraz sustatu beharra dago, ezinbestez.

Helburu horrekin, HIK HASI egitasmoak UDAKO TOPAKETAK prestatu ditu bederatzigarren urtez. Eta helburu horrekin, bide batez, HIK HASIk elkarlanerako hitzarmena egina du UEU, Udako Euskal Unibertsitatearekin.

Hitzarmen horren ondorioz, uda honetan 70 ikastaro eskainiko dira euskaraz Baionan, Iruñean, Donostian eta Eibarren.

Denona den eta denon diruarekin kudeatzen den UPV/EHUk, alta, udako ikastaroen erreferentea izanik, uda honetan 94 ikastaro, biltzar, tailer eta abar eskainiko ditu gaztelaniaz, 8 ingelesez eta 3 euskaraz.

Dagoena ikusirik, bistan da euskarazko prestakuntza sustatu, babestu eta lagundu beharra dagoela.

“Pixka bat es mucho” lema zabaltzen ari da Eusko Jaurlaritzak non-nahi. Horrela izango da hastapenean, beharbada. Baina Hezkuntzak gehiagora joan nahi du eta behar du. Eta hori, sortzen diren ekimenak diruz lagunduz gauzatzen da, esaterako. Uda ona izan!

# GAIA

## Imanol Urbietaren ekarpen pedagogikoa





Ikastaroak, Imanol Urbietaren ekarpen pedagogikoari buruzko gogoeta egiteko helburua du. Ekarpenera ez da soilik musikaren ingurukoa izan, ekarpenik handiena, pedagogia arloan egin duela esan daiteke, beti ere, euskal nortasuna eta euskara bultzatzeko ahalegina eginez. Berrogei urte badira Urbietak ildo pedagogiko hori sortu zuela, baina balio modernoak indartzen ditu eta egungo eskoletan aplikagarria da, zailtzarik gabe. Musika guztion ondasuna da eta haren bidez hainbat bizipen izan ditzakegu; horiek alboratu gabe, musikaz denok gozatzeko dugun eskubidea aldarrikatu nahi da eta hainbat gaitasun lantzeko tresna izan daitekeela erakutsi. Josu Txapartegi musikariaren koordinaziopean Kontxi Aizarna irakaslea, Joxean Urbietaren musika irakaslea eta Iñaki Lasa musika irakaslea arituko dira ikastaroa eskaintzen. Orriotan, Imanol Urbietaren ekarpenari buruzko gogoeta egin dute lauek doinu librean.

# G


## Musika haurren ondasuna eta eskubidea da

**Josu:** Nik uste dut Imanol Urbietaren ekarpen pedagogikoa aldarrikatzeko eta marko pedagogiko batean jartzeko ordua iritsi dela. Gertatzen da, Imanolek ez duela beste batzuek egin duten moduan bere pentsamendua teorizatu eta ez du esan nondik norako pedagogia ildoak jarraitzen zituen. Bere ideiak idatzi izan ditu hainbat tokitan, eta horiekin, eta Imanol ezagutu dugulako, ildo pedagogikoa atera liteke. Niri iruditzen zait hori planteatu egin behar dela. Imanol pedagogo musikal bezala aurkeztera ausartuko nintzateke; baina lan horretan hitzari garrantzi handia eman diola azpimarratuz. Hau da, haurrei doinu batzuk helarazi dizkie eta doinu horiekin doazen mezuak hasieran poeten eskuetatik edo beste pertsona batzuek hartu bazituen ere, gero bere hitzak sartzera ausartu zen, eta bere hitzak musikatzen hasi zen.

**Kontxi:** Ni ados nago horrekin. Imanolek berak beti esan du edozein hezitzailek haurren beharrei entzun behar diela, eta heziketa integrala osatu behar dela. Ez dela espezialistez edo es-

pezialitatez inguratutako gauza partzelaturik egin behar. Ni erabat ados nago. Musikarengatik egin da ezagun, baina nik uste dut musika bakoitzean eta kanta bakoitzean, lerro artean irakurri behar dela eta hortik mamia atera behar dela.

**Iñaki:** Ados nago ni ere. Haren lan batzuk guztiz pedagogikoak dira, eta haurren zatiren bat garatzera doaz, zuzenean. Xixupikan, adibidez, hizkuntza lantzeko kanta asko ditu euskararekin eta euskararen foniarekin oso kezkatua zegoelako. Eta beste abesti askok, oso aberatsak direnez, beste hainbat gauza jorratzeko aukera eskaintzen dute. Imanol, aspaldi, duela 40 urte, euskal trasmisioa egiten hasi zen eta hori lan guztian azaltzen da, gauzarik sinpleenean ere. Demagun sol eta mi notak landu behar direla; hori lantzeko edozein gauza idatz dezakezu, baina Imanolek Nafarroako herrien izenak sartzan ditu, adibidez. Haurrek, kanten bidez ikasten dituzte izenak eta beste zenbait gauza, eta hori da nire iritziz, egin duen ekarpenik handienetakoa. Ez diot ezer kentzen haren lan pe-



# Gogoeta doinu librean



dagogikoari, eta orain gainera, hezkuntzan, modan jarri da gure kulturaren transmisioa, horren beharra orain aurkitu izan balute bezala. Baina badira duela 40 urte lan hori egiten ari ziren pertsonak. Hori oso aberatsa da eta egin beharreko zerbait. Guk ez baditugu geure kultura eta nortasuna transmititzen, geurea denarekiko maitasunik ez badugu transmititzen... gero eta zailagoa izango da herri honen etorkizuna. Imanolen kantuetan maiz agertzen da gure herriarekiko maitasuna.

**Kontxi:** Hori da. Beste kulturak ulertzeko, lehenik zureaz jabetu behar duzu. Arrisku handia dago, barrukoa ezagutu gabe, kanpora begira jartzeko.

**Josu:** Imanolek lan horiek egin ditu eta zabaldu egin ditu. Irakasle askok jarraitu dute hori baina azken hamar urteetan beste fase batean sartu gara eta pedagogian, eskoletan eta gizartearen aldeketa izugarriak datoz. Eskaintza euskaldun musikal pedagogiko horri, orain etortzen ari diren ideia berriek nola eragiten dioten ikusi behar dugu. Uste dut gaur egun dauden arriskuak definitzeko ahalegina egin behar dugula. Gaur

egun, haurra bere osotasunean hartu beharrean, eta gizartea aldatzea ahalbidetuko dion mundu propioa eraikitzen laguntzeko haren beharretatik abiatu beharrean, haurra produkzioarako prestatu behar dugula defendatzen duen ildo gailentzen ari da, eta produkzioaren beharrek esango dute haurra nola hezi behar dugun. Horrek zuzenean jotzen dio aipatzen ari garen pedagogia mota horri.

Gaur egun, eskoletan, gelak zatitzen dira, orduak zatitzen dira, gaiak zatitzen dira, liburuak zatitzen dira, haurrak zatitzen dira... Eta pentsamendu zatitzaile horrek zuzenean jotzen dio Imanolen eskaintzari. Agian, batzuentzat, egokia da, pertsonaren zati bat baino ez dutelako aprobetxatu nahi, eta ez osotasuna. Imanolek, ordea, musika zeharlerro gisa erabili du eta bertan tematikak, giza zientziak, etxeko giroa edota haurraren negarrak landu ditu; denak lotu ditu musikaren bidez.

Beraz, haurra era jakin batean hezi nahi duten heziketa ildo berri horiek hartuko nituzke, ispiluan jarriko nituzke eta esan: arrisku hauek ditugu eta gauzak era batera edo bestera egiten baditugu, korrante batek edo besteak irabaz dezake. Eta uste dut, Imanolek bultzatu duen korrante pedagogiko unibertsal horrek irabaz dezakeela, munduan pedagogo ezagunenak izan direnek jarraitu duten ildo izan da, eta haurraren beharrak eta gizartearen beharrak osotasunean hartzen ditu. Hori ez da gaur datorrena.

**Iñaki:** Akaso horrekin bat etor litezke euskal curriculumak jasotzen dituen gaitasunak. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak aintzat hartu ditu eta Eusko Jaurlaritzak bere egin ditu. Plan teamendua ongi dago, baina egiten den moduaren arabera, emaitza askotarikoa izan liteke. Gaitasunen gaia za-

bala da; eta jaso dituzten horiez gain, badira beste gaitasun mota batzuk ere.

Haurtxikiaren beharrak bihotzekoak dira, haurra sentimendua da eta arrazoiak ez du funtzionatzen; bere burua bihotza da, eta musikak garrantzi handia du horretan. Izan ere, musika da, elementu guztietan, bihotzera lehena iristen dena. Haurrak txiki-txikitatik bizi du musika eta musika eta arrazoiketa zailagoa egiten zaio. Normalizazio linguistikoa lortzeko bidean, haurrei "egin euskaraz" dioten kartelak jartzen aritzeak, ez du halako eraginik; haurrei euskaraz aritzeko, jolasteko eta sentimenduak bizitzeko aukera eman behar diegu. Arrazoiak beste zerbait da, garrantzia du baita ere, baina bestelakoa da. Haurra, batez ere, sentimendua da, eta Imanolen lana hori guztia lantzeko baliatu behar dugu.

**Kontxi:** Eta hainbat musikak eta hainbat kantuk bere sentimenduei hitzak jartzen laguntzen diote haurrari. Haurra adin batean ez da bere sentimenduei hitza jartzeko gai, eta kantek sentimendu horiei hitza eta izena jartzen laguntzen diote haurrari, baina, guri ere, hezitzaile gisa, haurrek bizi dutenari izena jartzen laguntzeko aukera ematen digu musikak.







**Josu:** Espezialisten lana aipatu nahi nuke. Imanolen lana 12 urte bitarteko haurrei iristen zaie gutxi gorabehera, baina handik aurrera, hau da, Piagetek definitu zuen fase sentimental hori guztia pasa ondoren, gazteentzat egindako kanta batzuk badira, baina badirudi ez dela 18 urtera bitartean egin duen hori guztia sakontasunez lantzeko aukerarik. Irudipen hori dut.

**Iñaki:** Bi gauza daude. Lehena, lanak erantzuna eskatzen duela. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan abesteari lotuagoak egoten dira, eta beti daude hori lantzeko prest dauden irakasleak... Baina 12 urtetik gora ez dute abesten eta ordura arte egindako lana pikutara doa. Niri pena izugarria ematen dit.

**Josu:** Erronka handia dugu.


**Iñaki:** Imanolek gauzak egin ditu, baina 12 urtetik gora, institutueta, ez dago erantzunik.

**Kontxi:** Nik ez dakit adin horretan nola egiten den musika eskoletan, eta zer egiten den, baina pentsatzen dut, eskolan beste lehentasun batzuk jarzen direla eta agian, ikasleei musikarekin aurrera egiteko motibazioa falta

zaiela. Motibazioa, eskolatik bertatik falta da; eta hor espezialisten munduan sartzen gara. Espezialista batek haur askoren eta hainbat mailaren ardura du eta haren baldintzak ziurrenik ez dira aproposenak gaztetxo horiek guztiak estimulatzeko eta motibatzeke. Orduan, pentsatzen dut, batzuek musikaren historiara (gauza nahiko teorikoa) jotzen dutela, beste batzuek kanturajotzen dutela, beste batzuek musika tresnetera; txistua, gitarra... Eta gitarra batek ahotsaren lagungarri izan beharko lukeen arren, haurrek gitarra eskuetan hartzen dutenean, kantatzea kosta egiten zaiela ikusten dugu. Beraz, espezialistak dituen baliabideen arabera, eta dituen erraztasun pertsonalen arabera, egokien iruditzen zaiona lantzen du.

**Joxean:** Nik ikusten dudana da, institutueta musika ez dela gozamenaren ikasgaia. Semearekin argi ikusten dut etxean; beste edozein ikasgairekin bezala da, eta asko kezkatzen dira, esaterako, musikako azterketa dutenean. Soinua, abiadura, frekuentziak, grafikoak... lantzen dituzte eta musika baino, ia fisika da.

**Josu:** Imanolek markatu duen ildo musikal pedagogikoa, 12-14 urte bitartean emaitza onak eman ditu, gustuko ditugunak eta inork eztabaidatzen ez dituenak. Eta nire galdera da: zergatik ez dira horren izpiritua eta erabili diren elementu teorikoak programa be-



# Gogoeta doinu librean



rezi bat egiteko kontuan hartzen? Izpiritu hori beste kantu batzuekin azal daiteke, edo beste eduki batzuekin, nahi den eran, baina emaitza onak eman dituenari eutsiz. Ikastoletan helduago-entzat zer planteatzen zuten ikustera joan nintzen bilera batera, eta haserre bizian amaitu nuen, ikusi nuelako han zegoen nahia Frantzian eta beste nazioetan egiten den musika programa gurea ekarri eta hona egokitzea zela. Baina ez nuen ikusi gure herrian sortu den ildo pedagogiko hori, emaitza onak eman dituen hori, jasotzeko asmorik. Uste dut lan handia dugula 14-18 urte artean musikaren tratamenduak nolako izan behar duen definitzen. Nik uste dut, funtsezkoak diren elementuak antzeman, eta proposamen horretan txertatu behar ditugula.

**Iñaki:** Nik seigarren maila arteko ikasleak ditut, eta hortik gora ez dakit zer gertatzen den. Baina, nire iritziz, Batxilergoraino bateratuak diren eskola pribatuetan eta ikastoletan, ikastetxe mailan zerbait planteatu daiteke, eta Lehen Hezkuntzan landutakoari jarraipena eman dakioke. Hortik kanpora, DBHra iristen direnean, batzuek agian

ez dute apenas abestu eta haiekin abesten aritzea oso zaila dela iruditzen zait. Espezialistek adin batetik aurrera gehiago landu dezake beharbada, baina hortik behera, hurrekin ordu gehien pasatzen dituen irakasleak ardua handia du haurren kantagintza prozesuan. Nik musikari adin horretan kantagintza deitzen diot eta hori irakasleak egin behar du, baina espezialistak erraztasunak eman diezazkioke. Ikastetxean, musikak, kantagintzak, jarraipena izan behar du eta urtez urte abesti batzuk landu behar dira. *Txanela* edo *Urtxintxa* proiektuak hartzen dituzu, eta abesti mordo dago bertan. Hortik ikasturtean zehar ikasteko batzuk har daitezke eta tutoreari horiek lantzeko eska dakioke. Eguna abestuz hastea eta amaitzea bezalako gauza politik ez da. Gauza horietan dago espezialisten lana. Hortik ikusten dut bidea.

**Kontxi:** Zarauzko ikastolan asko abesten da, horrekin kezkatuta zegoen irakaslea egon zelako eta Imanolek haurrak animatzen jakin zuelako. Imanolek beti esan du, musika haur guztien eskubidea den ondasuna dela, eta musika belarri ona duenak eta belarri txarra duenak egin behar duela, ahots ona duenak, eta txarra duenak. Baina espezialisten artean, zenbat topatuko dituzue desafinazioak onartzen dituztenak? Ziurrenik, oso gutxi. Imanolek desafinazioak onartzen zituen, normaltzat hartzen zituen eta haurrak ez ziren baztertuak sentitzen une batean desafinatzen zutelako, jarraitza animatzen zituen. Gure ikastolan zortea izan dugu eta orain geratu den irakasleak ere, ahal duen neurrian, estilo horrekin jarraitu du. Zarauzko ikastolan haurrek DBH egiten dute, eta bada musika giro bat.

**Iñaki:** Musika azken finean ez da emaitza bat, bizipen bat baizik, eta gaiz-

ki abesten duenak ere bizi egin behar du hori.

**Kontxi:** 4. mailan eskoletan matematika emateko espezialistarik ba da? Nik ikusten dut musikari, oraindik, beldurra zaiola eta musika emateko musika jakin behar dela diote, matematika erakusteko matematika jakin behar den moduan. Baina, matematika ematen dugu, eta zergatik beldurtzen gaitu musikak? Topaketetan nire helburuetako bat joango diren irakasleak horretara animatzea da, eta esatea: zu gaizara hori egiteko, haurren aurrean dagoen pertsona zu zara, eta barruan duzun altxorra abian jarri behar duzu. Kanta gutxi dakizkizula pentsatzen baduzu, hornitu zaitez. Oso gauza gutxi-ekin, musika mailan jakintza gutxi-ekin, etekin handia ateratzeko aukera dago. Baikortasun hori transmititu behar dugu.

**Iñaki:** Adibidez, ni eskiatzera joango banintz, ziur nago lehen egunetan ez nukeela batere gozatuko. Baina ikasten dudanean eta pixka bat gehiago dakidanean, orduan, gozatuko dut. Haurrak zerbait ikasten dutenean, eta lau kortexa eta bi beltzekin zerbait egiteko gai direnean, poztu egiten dira. Gainera, nik lana sinatzeko esaten diet, haiena, pertsonala delako eta norbaitek kopiatzen badu, horri plagioa deitzen diotela erakusten diet. Eta flautajotzen dutenean ere, estuasun bat izaten da, kontzertua izaten delako eta beste en aurrean jo behar dutelako; besteek kritikatzeko aukera dute, gainera. Hori gairatzean, asebetetzen dira musika ikasi dutelako, eta jendeaurrean aritzeko beldurra ere, gairatze dutelako.

**Kontxi:** Jendearen aurrean jo behar dute, edo abestu, edo dantza egin; nerbioak pasa behar dituzte baina musikaren bidez hori gutzia errazago pasa de-



nagusia ez dela kantak ikastea. Bai, ikasturtea amaitzerako kanta batzuk ikasiko ditugu baina helburu bakarra ez da hori. Nik uste dut batuketak egiteko zortzi mila ariketa egiten badira, musikan kortxeak eta beltzak biko neurri batean lantzeko, beste zortzi mila ariketa egin ditzakezula, zortzi mila kanta abes ditzakezula, zortzi mila dantza dantza ditzakezula... Guztia, kontzeptu bera lantzeko. Horrek ez du esan nahi haurrak kanta horiek guztiak memorizatu behar dituenik, baina, fisikoki, gorputzez gauza horiek guztiak bizi izan ditu, gauza bera lantzeko hainbat adibide landu ditu. Ondoren, espezialistaren unea iristen denean, orduan jakingo du txuria eta kortxea zer diren... Iritsiko da gorputzez landu duena teorizatzen, irakurtzeko edo idazteko unea, baina ez dugu presarik izan behar.

**Iñaki:** Azkenean, irakurketarekin

zakete. Musikaren inguruan edota dantzaren inguruan egiten ditugun harremanek, ausardia puntu bat ematen digute eta pentsatzen dut haurra zarenean ere gauza bera gertatzen dela. Musika eskolan bagenuen 3. mailako haur bat; txirula oso ongi jotzen zuen, baina oso lotsatia zen eta Imanolek bakarrik jotzeko esaten zion. Behin haurrak esan zion: "Imanol, beti niri esaten didazu eta lotsatu egiten naiz, baina lagundu iezadazu lotsa gainditzeko". Beraz, jendearen aurrean egoten jakitea ahaztuz gertatzen diren gauzak dira.

**Iñaki:** Eta entzuten ikasi behar dute baita ere... Ondoren besteek egin dutena baloratzeko eta bestela, gainera, errespetu falta ikaragarria delako.

**Kontxi:** Gure ikastolan duela gutxi izandako bilera batean esan zuten *Txanela* proiektuan oso ongi markatuta dagoela zer egin, lan koaderno nola landu... eta irakasleak hori egiteko gai sentitzen dira, baina nire beldurra horretara bakarrik mugatzea da. *Txanelak* baliabide batzuk eskaintzen ditu baina liburu batera mugatuta zaude, nolabait, eta kanta zehatz batzuk ditu-

zu. Horrez gain, beste asko dago eta hori gure egin behar dugu.

**Joxean:** Irakasleek askotan esaten dute material asko ez jartzeko astean ordu eta erdi besterik ez dutelako...

**Kontxi:** Baina nik uste dut helburu



# Gogoeta doinu librean



eta idazketarekin gertatzen dena gertatzen da musikarekin ere. Lan koadernoak musika paperean jartzeko eta paperean jarritakoa irakurtzeko aukera ematen digu, baina, aurretik, hor jarri behar duzunaren bizipena izan behar duzu. Ezin daiteke musika tresna bat jotzerakoan erritmo bat eraman, baldin eta zuk ez baduzu erritmoa barneratu. Batzuek ez dute erritmoa sekula barneratzen baina saiakera horretan, hainbeste ariketa egiten badira, jolasen bidez... ikasten dute.

**Joxean:** Gure musika eskolan idaztea, azkena da. Musika idaztea eta diktaketak egitea, azkeneko gauza dira.

**Iñaki:** Kantagintzaren inguruan, gauza batetaz jabetu nintzen. Urtero jaialdiak egiten ditugu, eta behin, amaitzean, pertsona batek galdetu zidan ea haur horiek nola abesten zituzten Pello Joxepe eta horrelako kantak, jada ez di-

tuela inork abesten. Baina, hurrei gustatu egiten zaizkie eta abestu egiten dituzte. Beraz, letrak ezer esan ez edo asko esan, hurrek gozatu egiten duten une bat iristen da, eta hori da prozesuaren bidez lortu beharko genukeen gauza; abestea gustuko izatea, besterik gabe. DBHn adibidez, abesti rockeroak jartzen dira, baina abesti horiek sarritan

ez dute melodiarik eta ezin dira abestu; kantu horiek bizitzeko, entzuteko... dira, baina ez abesteko.

**Joxean:** Lehen, ikastolarekin irteerak egiten genituenean, abestu egiten genuen. Gaur egun, askotan, bakoitza bere musikaren joaten da, MP3a beldurrarian jarrita. Bakoitzak bere gustuak ditu eta berea entzuten du.





## Ikastaroaren egitura

### Kontxi Aizarna

Ipuinari tartea eskaini nahi diot; hizkuntza kantuz lantzeko. Hiru bat ipuin motz kontatu eta aplikazio musikal bat edo mugimenduzko zerbait nola egin daitekeen azalduko dut. Mugimendua izango da ardatza, keinuak landuta, bihotzetik abiatuta... Eta gure haurren neurriko kantak sortzea ez dela zaila helarazi nahi diet, eta ez dugula orijinalak izan beharrik, baizik eta egokiak haurren aurrean.



### Joxean Urbietta

Solfeoa dinamikaren bitartez eta jolasaren bitartez landuko dugu. Dinamika mugimendua da, baina klase bat dinamikoa izan daiteke eserita egonda. Solfeoa atsegina egiteko baliabideak eskaini nahi ditugu. Haurrekin abestiak nola sortu ere aipatuko dugu, aurreten esperientzia hori egin baitugu. Bi modu daude: bat, erritmoa ematea eta horri letra jaretzea da, eta bestea da, bertsoa ematea, adibidez, eta horri erritmoa ateratzea. Eta erritmoa aterata, melodia egingo dugu gero.

### Iñaki Lasa

Ni Lehen Hezkuntzan aritzen naiz eta garai hori landuko dut. Hiru zikloak landuko ditut; lehen egunean 6-7 urteko haurrekin zer abesti landu, eta abesti horiek nola ikasi ikusi dugu. Eta Imanolen ekarpen hori nola azaldu. Bigarren egunean, bigarren zikloarekin arituko gara, eta azken egunean, hirugarren zikloa landuko dugu; kanon simple batzuk eta abar. Garrantzia emango diot gure nortasunaren transmisiorako abestiak erabiltzeari. Eta ikasturte osoari abestien bidez errebasotxo bat emango diogu; haurrak oporretatik bueltatzen direnean zer kantatu, Gabonetan, Iñauterietan... Mugimendua landuko dut baita ere. Egun bakoitzerako 12 kantu aukeratu ditut.




# patxi izaguirre

*ELKARRIZKETA*

Psikologoa eta psikoterapeuta

// Haurrei heriotzaren aurrean  
minaren adierazpena normalizatzen  
erakutsi behar diegu //



# patxi izagirre

E

**// Aukera polita dago heriotzaren gaia curriculumean lantzeko, didaktikoki. Baina ez heriotza gertatu denean, baizik eta, aurretik, hainbat ariketarekin, hausnartuz, heriotza bizitzaren parte bat dela erakutsiz... eta batez ere txikiekin. Sei, zazpi edota zortzi urterekin kuriositate handia izaten dute heriotzarekiko, beldur handia diote, herstura sortzen zaie eta aukera polita izan daiteke horri buruz hitz egiteko.**

//

Heriotza. Suizidioa. Zirrara sortzen duten kontzeptuak dira. Bizitza naturaltasun osoz bizitzen badugu ere, heriotza, bizitzaren azkena, tabua da gure eguneroko elkarrizketetan. Mingarria da, deserosoa, eta inguruan gertatzen denean, gertuko norbait hiltzen denean, egoera hori kudeatzea, gure sentimenduak bideratzea, ez da erraza izaten. Patxi Izagirre psikologoa eta psikoterapeuta da, eta heriotzaren aurrean sortzen diren egoerak lantzen laguntzen du, dolu prozesuak bideratzen, eta horiek egoki egiten. Gero eta hedonista-goa den gizartean bizi garela uste du eta minaren aurrean ere, gero eta atrofiatuago gaudela. Inguruan heriotzen bat baldin badago, horren aurrean, erantzun normalizatu, itxaropentsua eta baikorra ematea sekulako ikasgaia dela dio, baina beste aldera begiratzen badugu, gerora, akaso, patologiak sortzeko arrisku gehiago izango duela pertsona horrek. Beraz, guztioi zaila egiten zaigun arren, heriotza ahalik eta naturaltasun handienaz bizitzea askoz ere osasuntsuagoa litzateke. Eskainiko duen ikastaroan, bide horretan, irakasleek ikasleekin landu ditzaketen alderdiei buruz arituko da, eta ikastetxeek heriotza kasuen aurrean protokolo bat izateak duen garrantziaz mintzatuko da.



**Heriotza eta suizidioa tabu diren gaiak izateak zaildu egiten du gai horien inguruko eztabaida eta hausnarketa. Nondik has gaitzke? Nola egin dezakegu planteamendu naturalagoa, eskolatik hasita?**

Hezkuntzan, ikastetxeetan, normalean, heriotza gertatu denean sortzen da irakasleengan gela barruan zerbait egiteko beharra. Dena den, beste leku batzuetan ez dute ezer berezirik egiten, denborak egoera bere onera ekarriko duela pentsatzen dute, eta beste aldera begiratzen dute, edo besterik gabe, gertatu dena ukatu egiten dute. Nik uste dut irakasleak bi paper har ditzakeela: egokia, hau da, lagungarri bihurtzen denean eta minaren adierazpena (negarra, amorrua...) normalizatzeko erreferente bihurtzen denean, edo desegokia; mina ukatzen duenean eta gertatutakoa ahaztu behar dela adierazten duenean. Nire ustez, azken hori, gerora begira arriskutsua izan daiteke. Haurrei heriotzaren aurrean minaren adierazpena normalizatzen erakutsi behar diegu.

Horrelako kasuak gertatzen direnean, irakasleen inpotentzia areagotu egiten da, eta pixkanaka konturatzen dira agian protokoloren bat izan behar dutela aurretik, kasuren bat emanez gero, nola jokatu behar duten jakiteko. Beti esaten dut, erdi brometan, ikastetxe guztietan dutela suteen aurrean zer egin behar duten azaltzen duen protokoloa, baina heriotzaren ingurukorik ez. Eta heriotza gehiago gertatzen dira suteak baino.

Aukera polita dago, bestalde, heriotzaren gaia curriculumean lantzeko, didaktikoki. Baina ez heriotza gertatu denean, baizik eta, aurretik, hainbat ariketarekin, hausnartuz, heriotza bizitzaren



parte bat dela erakutsiz... eta batez ere txikiekin. Sei, zazpi edota zortzi urterekin kuriositate handia izaten dute heriotzarekiko, beldur handia diote, heritura sortzen zaie eta aukera polita izan daiteke horri buruz hitz egiteko. Gaur egun heriotza, asko ikusten da telebistan modu birtualean, baina ez dugu emozionalki lantzen. Eta Euskal Herrian, batez ere, beste kultura batzuekin alderatuta, indarra bultzatu dugu; badi-rudi, adibidez, hiletan negarrik ez baduzu egiten, dolua ongi eramaten ari zarela. Eta ez da horrela.

### **Irakasleek zuregana jotzen dutenean, nola egiten duzue lan?**

Aitaren edo amaren heriotza Lehen Hezkuntzan ematen denean, alargun geratu dena ispilua izaten da seme-alabentzat. Aitak edo amak dolu prozesua ongi eramaten badu, eta haur horren psikismoa orekatua baldin badago, egoera gainditzeko baliabide propioak izango ditu. Horrela ez bada, esku-hartzea planteatzen dugu ikastetxearekin koordinatuz eta behar izanez gero, ikastetxeetara ere joan izan gara. Hasieran, alargunarekin egoten gara eta ondoren, orientazio saioak egiten ditugu irakasleekin.

Duela hiru bat urte Lantziegon hiru andereño hil zirenean, handik deitu ninduten eta alde batetik irakasleekin aritu ginen, eta bestetik, gurasoekin. Kasu hartan, zenbait dinamika bideratu genituen irakasleek ikasleekin egin zituzten. Izan ere, askotan, gure presentzia arrotza izan daiteke haurrentzat eta horrelako dinamika bat egiteko prest dauden edo ez neurtu behar da. Printzipioz, krisia gertatu denean irakaslea bera prozesua aurrera eramateko erreferentzia izan daiteke.

Dolu prozesua ongi eramateaz hitz egin duzu; zer da dolu prozesua ongi eramatea? Zer ezaugarri ditu ongi eramandako dolu prozesuak?

Dolu prozesua, galera hori onartzeko behar dugun denbora tartea da. Batez ere hasieran sor daitekeen heritura eraldatzeko, eta oroitzapen on bihurtzeko behar dugun denbora da. Proze-



su horretan denbora, pertsonaren oreka, testuingurua, bere baliabide propioak, adina, hildako pertsonarekin zuen lotura afektiboa nolakoa zen... hori guztia kontuan hartu behar da. Bidean hainbat blokeo egon daitezke. Horietako bat fideltasuna da, hau da, bada ongi sentitzen delako gaizki sentitzen den jendea, ongi jartzen badira, besteek kritikatu egingo dituztela eta pertsona hura ez zuela hainbeste maite pentsatuko dutela uste dute. Beste blokeoetako bat errudun sentimendua izaten da; batzuetan, pertsona horrekin harremanean zenbait alderdi asetu gabe geratu dira. Azken hori garbi ikusten da suizidio kasuetan. Beste blokeo bat izan daiteke, heriotza nola gertatu denaren arabera, estres postraumatikoa izatea. Hori ez da gorputza era tra-

gikoan ikusi dugunean soilik gertatzen, gaixotasunen prozesuetan ere ikusten da. Baztertzea beste blokeo mota bat da. Batzuk ohituta zeuden euren egoarekin dena kontrolpean izaten, pertsona narzizistak dira eta gero ezin dute, adibidez, alaba galdu izana onartu; isolatu egiten dira, munduarekin haserre daudela eta errua kanpoan dagoela dirudi. Dolu prozesuetan, indarra afektibitatean, emozioan eta intuizioan dago, ez logikan. Beraz, pertsonak duen nortasunaren arabera, blokeoak askotarikoak izaten dira.

Orokorrean, dolu prozesu batek hainbat fase ditu. Lehena, kommozioa, inpaktua, da. Hori ez da heriotzarekin soilik gertatzen, gaixotasunen kasuan, diagnostikoa jasotzean ere, inpaktua izaten da; heriotza datorrela mamitzen



// Baina egiten dutena egin dezatela lehen asteen, gero bestela ez duelako zentzurik; gauza ez da hilabetez buelta eta buelta aritzea, egin behar dena zehatz, era laburrean eta lehenbailehen egin behar da. Horrelako orientazioak ematen dizkiet gero haiek jarduera zehatzak eraikitzeko, ez dizkiet fitxak ematen mekanikoki dena lantzeko. Ideia nagusia hau da: haien mina adierazteko aukera sortu behar duzue.



has- ten garenean. Gero ukapena dator, gure psikismoa etsita dago, nolabait, eta geure burua hori ukatzen saiatzen da. Fase horren ondoren, atzera bueltarik ez dela konturatzen garenean, psikismoa apurtzen da, eta hori da faserik luzeena eta lantzeko zailena: aparatu psikikoaren desantolaketa deitzen diogu. Pertsona hori sasi-depresioan erortzen da, ilusio falta du, bere bizitzak zentzua galdu du. Fase horretan, zer baliabide dituen eta zein ikas ditzakeen ikusten dugu. Eta horren ondoren, blokeoak lantzen ditugu: pertsona horrekiko zuen harremana, pixkanaka agurtu dezan ariketa erritualak egiten dira... Helburua, pixkanaka horrekin bizitzen ikasten joatea da, baina arrazionalizazio prozesuetan erori gabe; izan ere, kanpoan hori jasotzen dute askotan. Norbait egoera horretan dagoenean zerbait biribila esan behar diogula dirudi, baina pertsona horrekin egon behar dugu, gertatzen zaiona, sentitzen duena adieraz dezan. Pertsona batzuek ezin dute jasan horrelako pertsonen ondoan egotea, hasieran dolumina ematen dute, hurrengo asteen gaizki ikusten dute, hurrengo hilabeteen egoera berean ikusten dute eta esaten hasten dira bizitza aurrera doala... Horrelakoetan, pertsona horrek besteen minarekiko duen zailtasuna islatzen da. Dolu prozesua bizitzen ari diren pertsona askok kutsatze ikaragarria sortzen dute besteengan, baina beharrezkoa da pertsonaren erritmoa eta beharrak errespetatzea.

Dolu prozesua orekatuta edo garbituta ote dagoen ikusteko hiru parametro daude: iraupena, intentsitatea eta

denbora. Pertsonak krisia duenean, zer sakontasunarekin duen, zenbat denbora irauten duen eta zer maiztasunarekin duen ikusi behar dugu. Hasieran, lehen hiru egunetan, intentsitatea % 100ekoa da, pertsona askok min fisikoa ere izaten dute hersturaren eraginez. Hiru parametro horiek dolu prozesua nola doan ikusteko objektibitatea eskaintzen digute.

### Zer da ikastaroan nagusiki landuko duzuen?

Irakasleak sentsibilizatzea da helburu nagusia. Heriotzaren gaia tabu da, eta beste aldera begiratzen dugu. Hori abiapuntua izango da, hau da, krisien aurrean protokolo batzuk eraiki behar dituztela gogoratzea. Bestalde, arlo didaktikoan edo curriculumean, ikastetxeetan pertsonak edo taldeek horren inguruan formazioa jaso dezaten bultzatu nahi dut. Uste dut ikastetxe bakoitzean beraiek erreferentzia bat izan behar dutela arazoren bat dagoenean hara jotzeko; informatikan, adibidez, bada ikastetxean erreferenteak direnak eta ordenagailuekin arazoak daudenean, haiengana jotzen dute irakasleek. Bada, gauza bera. Pertsona horiek materiala jaso dezakete, dinamika horiek egitura ditzakete eta horrela ikastetxe bakoitzean motoreak sor daitezke, arazoren bat dagoenean kanpoko profesionali deika aritu beharrik izan gabe.

### Zehazki, suizidioari buruz arituko zarete.

Suizidio kasuek gora egin dute azkenaldian; gazteengan, eta bereziki 15-35 urte bitartean, gero eta suizidio kasu gehiago gertatzen ari dira azken hiru urteetan eta oso kezkatuta nago gaiarekin. Ez dakit zer gertatzen ari den baina gazte asko suizidatzen dira, eta pertsona horiek ez zuten tratamendurik, dena ongi zegoen, eta horrek guztiak hausnarketa egitera bultzatu nau. Dinamika ezkutu batean sartzen dira, gezurretan hasten dira, eta porroten aurrean irtenbide desitxuratuak irudikatzen dituzte; suizidioa, kasu. Horren azpian, porrotaren aurrean gero eta ahulezia handia-

goa dugula ikusten da. Ez dakigu itxaropena nola sortu, hutsuneren bat bada, isolatzen hasten dira, eta ez etxean ez institutuetan ez gara ohartzen. Ikastaroan, zer seinaleri erreparatu behar diegun eta pertsona horiekiko zer arreta izan dezakegun landuko dugu. Egoeraz jabetzen saiatu behar dugu eta itxaropena ematen saiatu behar dugu. 15-35 urte bitartean arlo afektiboan izaten diren porrotek eragin handia izaten dute, eta ikusten ari gara, gizonezkoen suizidio kasuak, maiz, homofobiarekin lotuta daudela. Homosexualitatea klandestinitatera eramaten da askotan, ez dago bizipenik, ez dago egoerari ofizialtasunik emateko aukerarik, horrek arazoak sor ditzake, eta batzuetan, suizidiora ere irits daiteke. Duela hilabete

batzuk Europako Batzordeak argitaratu duen txostenak ere hori berretsi du: homofobiak gora egin duela azken sei urteetan, eta suizidio askoren arrazoia izan litekeela.

Ikastaroan, horren inguruan hausnarketa egiteko, galdera luzatu nahi nieke irakasleei: zertarako egin dezake horrelako ekintza bat gazte batek, zer premia du asetu gabe? Eta guk, zer egin dezakegu, gure rol pedagogikotik? Era berean, suizidioaren inguruan dauden mitoei buruz hitz egin nahi nuke. Besteak beste, askotan esaten da suizidioarekin mehatxatzen duenak ez duela bere buruaz beste egiten baina hori ez da horrela. Estatistikak hor daude eta handik urte batzuetara suizidioa gertatzen dela ikusten dugu, beraz mitoa apurtu behar

da eta albo batera utzi behar da horri kasurik egin behar ez zaionaren ideia. Sufrimendua dago eta nola lagun diezaiokegun aztertu behar dugu.

### **Protokolo bat sortzearen garrantzia aipatu duzu. Zer pauso jarraitu beharko lituzke protokolo horrek?**

Ikastetxeetatik deitzen nautenean, haien estiloaren arabera has daitezela esaten diet eta nik orraztuko dudala egiten dutena. Baina egiten dutena egin dezatela lehen asteen, gero bestela ez duelako zentzurik; gauza ez da hilabetez buelta eta buelta aritzea, egin behar dena zehatz, era laburrean eta lehenbailehen egin behar da. Horrelako orientazioak ematen dizkiet gero haiek jarduera zehatzak eraikitzeke, ez dizkiet fitxak ematen mekanikoki dena lantzeko. Ideia nagusia hau da: haien mina adierazteko aukera sortu behar duzue. Duten adinaren arabera, hitzez adieraz dezakete errazago (DBHn eta Batxilergoan) eta hortik behera, Lehen Hezkuntzan, adibidez, jolas sinbolikoak, psikomotrizitatea... erabil daitezke. Dinamikak aldatu egiten dira hil den pertsonaren arabera eta egoeraren arabera. Adibidez, ikaskide baten aita edo ama hil bada, haurra eskolara itzuli aurretik, besteekin dinamikaren bat egitea egokia da; dinamika horren bidez, doluminak emateko era sinboliko bat sor daiteke eta gelara itzultzen denean, haur horrek babesasentituko du.

Adibidez, behin ama batek esan zidan 15 egun pasa zirela bere senarra hil zenetik. Bi seme-alaba ditu, eta ikastolatik deitu zioten zortzi urteko semeak gelakide guztien aurrean zerbait esan zuelako. Gelakideen aurreran jarri eta zera esan zuen: "Sekretu bat kontatu behar dizuet: nire aita hil egin da". Anderenoa ikaratu egin zen, etxera deitu zuen, amari esan zion eta etxera etortzean amak galdetu zion semeari: "Ikastolatik deitu didate. Hori esan al duzu?". Eta haurrak, ezetz. 15 egun pasa ziren eta eskolan inork ez zion ezer esan haur horri, inork ez zizkion doluminak eman. Haur horrek minaren adierazpena normalizatzeko beharra



**//** Haurren dolu prozesuetan, ispilua ama edo aita izaten da, eta askotan, seme-alabak aita edo amaren zaindaria bilakatzen dira; alderantzizkatutako rola da. Hurrek umezurtz geratzeko beldurra dute eta haien dolu prozesua itotzen dute bizirik dagoen gurasoa zaintzeko. Nik askotan esaten diet gurasoei euren dolu prozesua lantzeko, eta seme-alabek ongi ikusten badute, euren mina adieraziko dutela.

**//**



zuen eta horregatik esan zien hori gelakideei. Kasu horretan islatzen da ezin dugula beste aldera begiratu.

**Eta zergatik ukatu zuen esandakoa, gero, amaren aurrean?**

Haurren dolu prozesuetan, lehen aipatu dugun moduan, ispilua ama edo aita izaten da, eta askotan, seme-alabak aita edo amaren zaindaria bilakatzen dira; alderantzizkatutako rola da. Hurrek umezurtz geratzeko beldurra dute eta haien dolu prozesua itotzen dute bizirik dagoen gurasoa zaintzeko. Nik askotan esaten diet gurasoei euren dolu prozesua lantzeko, eta seme-alabek ongi ikusten badute, euren mina adieraziko dutela. Haien dolua adierazten dutenean aita edo ama ongi dagoela ikusten badute, barruan dutena askatuko due, baina bestela, ez. Kasu horretan garbi ikusten da ama babesteko ukatu zuela semeak, aurrez, ikasgelan esandakoa.

Hala ere, irakasleek haurra ongi ikusteko presa izaten dutela iruditzen zait eta familiak zerbait galdetzen duenean, erantzuna haurra primeran dagoela edota besteekin ongi dabilela izaten da. Baina negar egitea edo urduriegotea, hori ere, ongi egotea da; mina eskolan, tutorearekin edo irakaslearekin adieraztea, egokia da. Bestela, ikas-tetxe askotan ikaratu egiten dira handik zortzi hilabetera amorrua edota krisia dagoela ikusten dutenean. Izan ere, gazteengan dolu prozesua amorruren bidez ateratzen da askotan, ez tristuraren bidez.

Guk, hurrei, haserrea adierazteko konfiantza ematen diegunean, gurekiko konfiantza dute, baina galdetzen dutenean gauzak ukatzen baditugu, lotura hori moztuko dute. Eta suizidio kasuetan garbi ikusten da: ama suizidatu bada adibidez, aita ez daki nola adierazi, eta erori egin dela edota bihotze-koak eman diola esan dezake. Agian

etxean ez diote ezer garbi esan, baina kalean zerbait entzun du, eta kasu horietan, konfiantza apurtzen da. Zaila da haur horri ama nola eta zergatik hil den azaltzea, baina egia da bidea, beti.

### **Garrantzitsua da, beraz, gauzak izan diren moduan azaltzea.**

Bai. Errealismoz, afektiboki babes eskainiz eta norberak itxaropena jorratuz. Bestela, traizio txiki bat gertatzen da, haurrak eskubide osoa duelako zer gertatu den jakiteko, nahiz eta oso mingarria izan. Askotan egia jakitea oso traumatikoa izan daitekeela eta ez jakitea hobe dela pentsatzen dugu, baina denbora batera ikusten dugu, agian, haurra arazo hipokondriakoak izaten hasi dela. Gure prozesua landu behar dugu eta haurrari egia esan behar diogu memento eta modu egokiak aurkituz eta bere galderak entzunez.

### **Eta egokia litzateke ikasgelan, horrelako kasuren bat egonez gero, gainerako ikaskideekin gaia lantzeko aukera baliatzea?**

Bai. Zalantzarik gabe. Suizidioaren kasuan, jeu de foulard delakoa gero eta ohikoagoa da Euskal Herrian. Fular batekin zintzilikatzen dira, eztarria estutzen dute sasi-inkontzientzian sartu arte, eta fisikoki zenbait sentipen sortzen dira. Era horretan hainbat suizidio gertatu dira.

### **Jolastu nahian, eskua joan zaielako?**

Bai. Baina jolastu nahi horren azpian zer dagoen ikusi behar da. Nafarroan aurreko horrelako kasu bat gertatu da eta aukera izan zen gelakideekin horri buruz hitz egiteko, ez suizidioaren inguruan soilik, baizik eta heriotzaren inguruan. Zeren urte berean bi gelakide hil ziren, bata sasi-suizidio horrekin eta bestea, gaixotasun baten ondorioz. Haurrengan beldurra, psikosia, sortu zen eta horri buruz hitz egitea irakasleen ardura pedagogikoa dela uste dut.

### **Baina heriotzari buruz, inguruan**

### **dugunean hitz egin behar dugu soilik, edo naturaltasunez hitz egin beharko genuke beste edozein gairen inguruan egiten dugun moduan?**

Naturaltasunez hitz egin beharko genuke, sexualitateari buruz bezala, adibidez. Sexualitatea duela 15 urte tabu zen, baina garrantzitsua da ikastetxeetan lantzea bizitzaren zati bat delako. Jakina, bizitzaren alderdi atsegingarria da eta heriotzaren gaia ez da atsegina; ondorioz, tabua sortzen da. Denok dakigu hil egingo garela, hori ziurra da, eta horren aurrean nola prestatzen dugu geure burua? Horri buruz hitz egiten ez badugu, eta gaia lantzen ez badugu, ezin dugu prestatu. Heriotzaren gaia edozein unetan landu dezakegu; aitona hiltzen denean, errepideko segurtasunari buruz ari garenean... Era askotara landu dezakegu eta gero eta material gehiago sortzen ari da. Suizidioari dagokionez, 2006 urtean Estatu espainiarrean aterarako datuen arabera, kotxe istripuetan 3.200 pertsona hil ziren gutxi gorabehera, suizidatuta, berriz, 3.300. Gehiago. Datua izugarria da, eta bideko segurtasuna zaintzeko kanpaina asko egiten dira ikastetxeetan, baina suizidioa ez da behin ere aipatzen. Suizidioaren gaia klandestinitatean dago.

Txikitatik, era didaktikoan, horri buruz hitz egiteko aukera ematen badiegu, eta galdetzen hasten direnean erantzunak eskaintzen badizkiegu, haurrak trebatuko ditugu. Nahi badute hiletara joaten, nahi badute gorpua ikusten, ospitalera joaten, liburutegian heriotzaren inguruko ipuina aukertzen uzten... utzi behar diegu. Era horretan euren beharrak asetuko ditugu.

### **Babestea, beraz, ez da bizitzen ari dena ukatzea, baizik eta behar duen erritmoan eta bere neurrian eskatzen duena eskaintzen joatea, ezta?**

Bai, estimulazioa entzunez. Estimulazioa entzun gabe estresa eta hertsura sortzen zaizkio. Heriotza barra-barra agertzen da hainbat filmetan, tele-

bistan... Haurrengan gehiegizko estimulazioa dago heriotzarekiko, baina guztiz deskonektatua; hori da kontraesana. Hori guztia testuinguru serio eta hezitzailean sartuz gero, haurrek entzuten dute, sentitzen dute eta adierazten dute; ez dira soilik heriotzaren irudiarekin geratzen, baizik eta horren inguruan sortzen diren emozioekin.

Eta suizidioari askotan kutsu erromantikoa ikusten zaio. Suizidioaren alde gaude gaixotasuna edo ezintasuna fisikoa denean, baina psikikoa denean, ikusten ez denez, ez gara ohartzen hor azpian sor daitekeenaz, eta azken batean, eutanasia psikikoa litzateke. Suizidioa hor dagoen zerbait da eta horri buruz hitz egin behar dugu; ez era morbo-soan, baizik eta aurretik sufrimendu handia dagoela, eta laguntza eskatzeko aukerak badirela planteatuz.

**Norbere esperientzia bezalakorik ez da gauzak ikasteko eta Patxi Izagirrek, ikasgelan izan zuen kasua ez du sekula ahaztuko: "12 urte inguru nituela irteera egin genuen eskolan; goizean Laga eta Laida hondartza inguruak ikustera joan ginen, eta gero, Artxandako atrakzio parkera joan behar genuen. Goizean, han ginela, uretara sartu ginen eta oso gaizki zegoen; nire gelako neska bat itota hil zen. Irakasle guztiak negarrez gogoratzen ditut, isiltasun izugarria, gu autobusaren zain, etxera bueltatzean guraso guztiak zain genituela... Eskolara itzultzean ez genuen gaia aipatu. Nola liteke? Nik uste dut une hartan ikusi nuela gaia jorratu behar dela".**

## Hezkidetza gida

### 50 galdera eta beste horrenbeste proposamen

**Aurten kaleratu du Euskal Herriko Bilgune Feministak "Hezkidetza gida". Parekidetasunaren bidean lanean diharduten hezitzaileentzat tresna praktikoa izan nahi du gidak eta 50 galdera eta horiek erantzuteko 50 proposamen planteatu dituzte Marije Apodakak, Maider Gonzalezek, Aitziber Martinez de Lagosek eta Bea Ugartek.**

Hezkuntza jardueretan, oharkabean, maiz gertatzen dira sexu bereizkeriak. Horregatik arrazoi nahikoa bada go parekidetasuna lortzeko eskolako jardueretan esku hartzeak ondo planifikatzeko. Adibideak, asko dira. Jolas-tokietan, gehienetan, mutilak ikusten dira jaun eta jabe, eta neskek berriz, bazterreko jolasean; lantzen diren liburu eta edukietan, eduki androzentrikoak dira ardatza nahi baino gehiagotan; jarreretan, harremanetan, balioetan, askotan, eredu maskulinoa izaten da erreferentea.

Bilgune Feministak duela urte batzuk ikastetxeek hezkuntza hezkidetzaillea bermatzeko beharrezko minimoak jasotzen dituen 10 puntuko zerrenda, Minimoen Taula, kaleratu zuen. Minimoen Taula, Euskal Hezkuntza Sistematan txertatzeko bitartekoa da, hain zuzen ere, hezkidetza eta genero ikuskera praktikatzeko lagundu gaituena. Baina, horretarako, Hezkuntza Sistemak, eraldatzailea eta sortzailea izan beharko luke. Hau da, hezkun-

tzak, genero-arteke erlazio berriak sortzen laguntzeaz gain, euskal emakumeok bizi ditugun, eta historian zehar bizi izan dituzten gutxitze eta diskriminazioei aurre egiteko bitarteko zehatzak izan beharko lituzke.

Bilgune Feministak, bide horretan, hots, Parekidetasunaren bidean, urratsak emateko hezkuntzan dabilen edonori, beste tresna bat eskaini nahi izan dio. Horrela, 2006. urtean, Hezkidetza-Gida sortzen hasi ginen; aditu-taldea sortu eta edukiak definitu genituen. 2008an argitaratu dugu eta hezitzaileei hainbat bidetatik helarazten ari gara (komunikabideak, mintegia, ikastaroa eta aurkezpen zehatzak). Gaurtik aurrerako lanean, hezkidetza errealtatea izan dadin, hezkuntza-komunitatean bilkurak, eztabaidak eta adostasunak lortzea litzateke helburua.

Gidak, eredu maskulinoa nola go-

raipatzen den erakusteko hainbat adibide praktikoa ematen ditu. Unitate Didaktikoak sortzean, edozein hezitzailek hezkidetza kontuan izateko jarraibideak emango dituen gida sortu nahi izan dugu. Parekidetasunaren bidean beste tresna bat da. Baina, tresna edo bitarteko praktikoa izatea nahi izan dugu, hezitzaileek pauso praktikoa emateko duten erronkan, lagungarri izatea nahi izan dugu. Hori dela eta, gidak, irakasleak eguneroko jardueretan izan ditzakeen galderei erantzuteko asmoz planteatu da. Eman beharreko pausok antolatu ditugu eta horretarako, koloreen bidez atalak ondo bereizi ditugu. Atal teorikoa eta praktikoa ondo uztartuak ditu, gidaren erabilera errazteko eta atal praktikoa garrantzia emateko.

Unitate Didaktiko bat egitean hezkidetzaren ikuspuntutik kontuan izan



beharreko elementuak azaltzen ditu: balioak eta konpetentziak, helburuak, edukiak, metodologia, ikastetxearen antolaketa, materialak, harremanak, hizkuntza, espazioa eta denbora, ebaluazioa. Atal bakoitzean, hainbat galderen inguruan hausnarketa eta proposamenak luzatu ditugu.

Atal bakoitzean, hezkidetzaren ikuspuntutik eginiko definizioa osatu dugu; hainbat proposamen, jarraibide, zenbait egiteko modu eta adibide ere eskaini ditugu. Horrela, praktika bat, parekidetasunaren aldekoa den edo ez bereizteko irizpideak izan ditzagun.

Gidan, galdera hauei eta beste horrenbeste galderari erantzuteko proposamenak topa daitezke:

1. Zeintzuk dira sexua eta generoa dela eta diskriminazioak ekiditeko hezkuntzaren oinarritzat hartu beharreko balioak?

2. Konpetentziek zein irizpide bete behar dituzte?

3. Zeintzuk dira balio eta konpetentzia horiek barneratzen lagunduko duten jarraibideak?

4. Zeintzuk dira sexua eta generoa dela eta diskriminazioak ekiditeko helburuek bete behar dituzten irizpideak?

5. Helburuak bertsuak izan behar dira neskentzako edo mutilentzako?

6. Gu, hezkidetzailleok, ere, generoan sozializatuak izan gara. Zer egin dezakegu hori ikasleengan edo partaideengan ditugun itxaropenetan ez islatzeko?

7. Zer hartu behar da kontuan edukiak programatzerakoan?

8. Zelan jorratu jarrerak?

9. Hezkidetzailleon zein jokabideetan isla daiteke sexismoa?

10. Zeintzuk dira metodologia hezkidetzaillearen ildoak?

11. Zein teknika erabil daitezke eta zer lortu behar dute?

12. Zeintzuk dira metodologia hezkidetzaillea martxan jartzeko jarraibide lagunak?



13. Ikastetxeetan hainbat arau eta protokolo arautua datoz, hezkidetzailleek zein partaideek ezin dute ezer aldatu, zer egin hori baztertzaillea denean?

14. Zer da antolakuntza demokratikoa?

15. Zelan aztertu materiala sexista den ala ez jakiteko?

16. Zein estrategiek laguntzen dute harreman parekideak bultzatzen?

17. Zeintzuk dira zaintzaren etikaren irizpideak?

18. Zein izango da parekidetasunaren oinarritutako harremanak izaten lagunduko digun araudia?

19. Zeintzuk dira komunikaziorako oinarritzako arauak?

20. Zer da hizkuntza sexista?

21. Euskara sexista al da?

22. Zer da espazioa eta denboraren erabilera sexista?

23. Zer aztertu behar da espazioari

eta denborari buruzko diagnostia egiteko?

24. Zer da ebaluazio hezkidetzaillea?

25. Nola ebaluatzen dira jarrerak?

Laburbilduz, horrelako galderei erantzunez zera lortu nahi dugu: norbere berezitasunaren arabera, askotariko izaerak onartuz, generotik at egiten den pertsonen hezkuntza. Irizpide sexistek barnebiltzen dituzten, gizon eta emakumeei egokitutako rol, balio, portaerak... transmititu gabe heztea.

Pertsona autonomoak izateko, gure bizitza proiektuen jabe izateko, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan, behar ditugun gaitasunak garatzeko helburuz.

Kontzientea den prozesu hezitzailea, eta neska eta mutilen arteko aukera berdintasunean oinarritua. Pertsonen garapen integrala. Pertsona zoriontsuak.

## Hazitegi proiektua

### 0-6 urteko haur eskolak

Hazitegi proiektuak 0-6 urte bitarteko Haur Hezkuntzaren inguruan hausnartzeko gunea eskaini nahi du. Helburua, ikasgeletan hobekuntzak egiteko gogoeta bultzatzea da eta hori lortzeko hainbat gai landuko dituzte ikastaroan: haurren zein helduaren rola, atxikimendu-irudiaren bikoizketa, familia-erikiko eta komunitate-erikiko harremanak, jardueretarako irizpide nagusiak, espazioaren antolaketa, denboraren antolaketa... Norberak, ahal duen neurrian, ikasgelan egokitzapenak eginez, haurren garapen naturala bultzatzeko espazioak sortzeko tresnak eskainiko dituzte Hazitegi proiektuko kideek.

Hazitegi proiektua Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean hasi zen mamitzen. Eskola batek, haurren garapen ahalik eta osasuntsuena eta egokiena bultzatzeko zer nolako ezaugarriak izan beharko lituzkeen definitzea izan dute helburu hasieratik, eta zenbait aldagaik haurren garapenean duten garrantzia eta eragina ikertzen hasi ziren. Hasieran, 0-3 urte bitarteko hezkuntza ikertu zuten, baina geroago, proiektua zabaltzea eta 6 urte bitarteko haurrak aintzat hartzea erabaki zuten. Ikerketa hutsean geratu gabe, hori guztia praktikara eramanez nahi zuten eta gaur egun, proposamena lantzen ari di-

ra, prest dutenean liburu moduan plazaratzeko. Alde batetik, marko teorikoa izango du, eta bestetik, arlo praktikoan, euren planteamendua haur eskoletan aplikatzeko proposamen zehatza egingo dute.

Eskainiko duten ikastaroaren helburua hori izango da hain zuzen ere; eskolen egoera aztertzea eta hobekuntzak egiten saiatzea, edo horretarako tresnak eskaintzea.

#### Eskola egokiak

Baina, zer beharko luke eskola batek haurren garapenarentzat egokia izateko? Bada, zenbait ezaugarri bete beharko lituzke: alde batetik, irakasleek haurren garapen-erikiko eta behar-erikiko sentikortasun handia erakutsi beharko lukete, eta hitz egiteko eta azalpenak egiteko unean, kontuan izan beharko lukete hori. Bestalde, garrantzitsua litzateke erritmo biologikoa errespetatzea (nola ulertzen diren, nola kudeatzen diren...), haurren beharrik asetzeko nolako espazioak dauzkeen, eskolarako trantsizioa prestatzea...

Hazitegitik, haurrari bere interesen arabera mugitzen uztea garrantzitsua dela ikusten dute. "Haurrari naturak bere erakusten dio zein den bidea, hori frogatuta dago. Helburua, espazio, material eta jarduera anitzak proposatzea da, baina ezer inposatu gabe. Gure ustez testuingurua eta harremanen testuingurua zaindu behar ditugu, eta hori errespetatuta, gizaki bakoitza egoki garatuko dela uste dugu. Horretarako haurra begiratu behar dugu eta ez hainbeste geure eskemetara moldatuarazi", esan digu Alex Barandiaranek.



Era berean, kontuan hartu behar dugu zer jarduera eta nola aurkezten dizkiegun; ez baita gauza bera fitxa bat edo esperimintatzeko zerbait eskaintzea. Garrantzitsua, haurra espazio horretan seguru sentitzea da, era horretan ikerketa eta esplorazioa bultzatzeko.

Haurra seguru sentitzen bada, eta beldurrik ez badu, esploratu egingo du, baina zer esploratu eman behar diogu eta horrek aberatsa izan behar du. Agian, guztiek ez dute memento oro gauza bera esploratu nahi eta hori, helduak garapenerako jartzen dion oztopo izan daiteke. Programazioa oso estua baldin bada, egoera blokeatuta daiteke, haurrari bideak moztzen zaizkio eta ondorioz, haurrak, jokabide ez egokiak har ditzake. Alexek esan digunez, denek une berean gauza bera egitearen ideia teorikoki eusterik ez dago. Autonomia bultzatzea, beraz, garrantzitsua da: "Inposaketaren bidez ez dugu auto-



nomiarik edota garapen autonomorik sustatuko. Aniztasuna eskaintzean, bi gauza lortzen ditugu; alde batetik aniztasunari erantzutea, eta bestetik, autonomia garatzeko aukera”, esan digu Elena Lopez de Aranak. “Haur Hezkuntza esplorazio garaia da; atea irekitzeko garaia. Muga bakarra helduok jar dezakeguna da, irakasleek edo gurasoek. Jarduerak, beti, orri batean marrazkiak egitea edo gometxekin ibiltzea baldin badira... Hori ez da esploratzea”, jarraitu du Alexek.

Irakasleei lan egiteko eran, zenbait aldaketa egin beharra ekarriko lieke horrek, baina Iñaki Larreak esan digunez, ez luke lan gehiago ekarriko: “Kontua dazenbat denbora ematen dugun, askotan, haur bat motibatua ez dagoelako. Motibatua ez dagoenez, aldamenekoari joka hasten da, edo jolasean hasten da, edo fitxa hartu eta bota egiten du, adibidez. Horrek ondorioak dakartza ikasgelako martxan, eta ildo horretatik, agian prestakuntza mailan edo antolaketa mailan lan gehiago izan daitekeena, inbertsio bat da, ondoren haurrek denborarik galtzen ez dutelako eta irakaslearen esku-hartzea errazten delako. Irakasle asko kexatu egiten dira, adibidez, beti joka dabilen ikasleren bat dutelako, baina zergatik galdetu behar da, ea zer egin daitekeen horren atzean”.

### Egin beharreko aldaketak

Hori guztia aurrera eramateko beharrezkoa da espazio fisikoaren antolaketa egokia egitea. Hainbat eskoletan egindako ikerketetan ikasgelak maiz oso txikiak izaten direla ikusi dute Hazitegikoek eta lehen aldarrikapena hori da: esperimentatzeko edota mugitzeko aukera handiagoa eskainiko duten ikasgela handiagoak behar direla, alegia. Haurren beharretara egokitutako espazioak behar dira, ez helduen beharretara egokitutakoak. “Gure proposamena hiru dimentsiotako espazioak izatea da, haurrek 0-6 etapen mugitze-

ko aukera izan dezaten, alderdi psicomotorea lantzeko aukera areagotzeko. Era berean, hainbat egitura egotea proposatzen dugu, haurrak, libreki eta nahi badu, espazio hori esplora dezan. Gaur egun ez dago horrelakorik, agian ez delako horretan pentsatzen”, esan digu Alexek.

Era berean, kanpoko espazioak egokitu beharko lirakeke, esploratzeko espazioak izan daitezten, naturarekin harremanetan egoteko modukoak: landareekin, hondarrarekin, animaliekin...

Beste proposamenetako bat ikasgelan hainbat adinetako haurrak elkartzea da, imitazioz ikasten dutelako eta haur nagusien aldetik, jokabide afiliatiboak sustatzen direlako. Elenak esan digunez, “horrek aukera ematen die rola aldatzeko, txikiak direnak gerora eredu izango baitira. Taldea homogeneoa baldin bada, norberak duen roletik ateratzea zaila izaten da”. Eskola txikien erreferentzia badute, eta oso aberasgarria dela ikusi dute.

Aldarrikatzen duten beste gauzeta-ko bat, gurasoen eta irakasleen arteko harremana bultzatzea da, eta gurasoak eskolan presente egotea. Batzuetan muga espaziala dagoela dirudiela diote, eta bi espazioen artean koherentzia mantentzeko garrantzitsua litzatekeela

esan digu Alexek: “Gurasoak geletan sartzea eta komunitatea bertan egotea proposatzen dugu. Eskola espazio itxia izaten da askotan; ikasleen eta irakasleen eremua, eta hori gainditzea garrantzitsua dela uste dugu”.

Baina, Hazitegikoek aztertu dituzten eskola gehienak, behintzat, nahiko urrun daude proposatzen duten eredu-rik. “Helduok jartzen ditugun mugez gain, administrazioak berak jartzen dituenak topatzen ditugu; ratioak, gelen tamaina...”, esan digu Iñakik. Eskoletara egindako bisitetan denetik ikusi dutela esan digute; oinarrizkotzat jotzen dituzten gauzarik ez dutenak, baina baita oso ongi dauden eskolak ere, esperimentazioari sekulako garrantzia ematen diotenak, lan handia egiten duten irakasleak...

Nolanahi ere, funtsezkoa da haurra begiratzeko moduaren inguruan pentsatzea, eta horri garrantzi berezia emango diote ikastaroan. Lan egiteko beste modu batzuk ere posible direla adieraztea edo hobetzeko ideia batzuk eskaintzea da helburua. Egiten ari direna zergatik egiten duten hausnartzea izango da lehendabiziko gauza, eta ondoren, gaur egun duten errealitatea hobetzeko zer egin dezaketen hausnartzea.



## Balioen heziketarako ardatzak



**Maria Angeles DE LA CABA**

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

**Balioetan hezteak duen garrantziari buruz hitz egingo dute ikastarotan Maria Angeles De la Cabak eta Nancy Chacón-ek. De la Cabak artikulua honetan dioenez, helburu nagusia, autonomia eta norberarekiko zein besteekiko tratua ona abiapuntua izanik, oinarrizko balioak indartzeko, baliabide psikopedagogikoak aztertzea izango dute helburu.**

Balioetan oinarrituz egokia dena erabakitzen dugu. Baloreek norberaren edota taldearen lehentasunak markatzen dituztela kontutan hartuz, horien garrantzia ukazina da, norbera eta harremanak ulertzeko moduak, erabakiak hartzeko irizpideak eta jokabideak baldintzatzen baitituzte. Balioak, ongi eta gaizki dagoenaren sinismenak dira. Hala ere, baloreak ez dira ideia

hutsak eta, ez dugu ahaztu behar, osagarri sozioemotionala dutela. Norbait zer bait oinarrizkoa dela sentitzen ez badu, hori babesteko ahalegin txikia egingo du, eta garrantzitsua dela sentitzeko, "esanguratsuak" diren pertsonekin partekatutako balioak izan behar ditu.

Edozein talde, erakunde edo gizartetan, kideen arteko balio konpartituak jarraitzea espero izaten da. Gizarte tradizionalekin alderatuz, gaurengungo gizarte konplexuetan, Hezkuntzak proposatutako partekatutako balioak ezartzea ez da batere erraza, eta hezkuntza baliabideetan ados jartzea, askoz gutxiago. Erreferentzi puntuak etengabe aldatzen ari direnez, hezitzaileek gero eta oztopo gehiago dituzte balio eta estrategia komunak izateko.

Autonomia eta norberarekiko zein besteekiko tratua ona abiapuntua izan

nik, oinarrizko balioak indartzeko, baliabide psikopedagogikoak aztertzea izango dugu helburu, eta, horretarako hiru estrategia mota hartuko ditugu kontuan: harreman-estrategia, antolakuntza-estrategia eta curriculum-estrategia, hain zuzen ere.

Harreman strategiari dagokionez, hezitzaileek indartu nahi diren balioen ispilu izan behar dute eta, horretarako, haien arteko koordinazioa ezinbestekoa da, batez ere, erreferentzia mugak egonkorra izan daitezten. Mugek duten garrantzia eta bete beharreko baldintzak aztertzeaz gain, modan dagoen "negoziazioaren" paperari buruz go-goeta egitea komeni da, zer eta noraino garbi ez izatearen arriskuak kontziente egiteko. Bestalde, alderdi positiboa indartzeko estrategia bakoitza, besteak beste, inzentiboa, indartze positiboa eta, batez ere, estimulazioa, zertan da-



tzan ahaztu gabe, taldearen potentziala aztertu behar dugu. Autonomia eta tratu onak, neurri handi batean, taldean esperientzia positiboak eta ekarpenak egiteko aukerak ematen direnean ikasten dira; bereziki egoera problematikoen aurrean.

Antolakuntza-estrategiari dagokionez, balioak ikasteko prozesuan, bereziki aldagai bat azpimarratu behar da guztien artean: erantzukizuna. Izan ere, erantzukizunak izaterakoan ikasten da autonomia, eta besteekiko beharrek inpatizatzen. Bestalde, erantzukizunik gabe, taldean lan egiteko beharrezkoak diren trebetasunak eta balioak ez dira ikasten, azken batean, erantzule izatea ezinezkoa bihurtzen delako. Balio eta trebetasun horiek garatzeko tresna nagusia ikaste-prozesuaren antolakuntza bera da. Hain zuzen ere, lankideak edota elkari laguntzeko aukerak eta taldeak erabiltzeko erak. Talde-lanari buruz hainbat galderari aurre egin behar diegu: Berezko taldeak edota talde antolatuak? Taldeak noiz, eta zer ikasteko?

Azkenik, curriculum strategiaren helburua, eguneroko dinamikan, hezkuntzan autonomia eta tratu onak balio konpartituak bihurtu daitezkeen hainbat trebetasunetan entrenamendu eta praktika sistematikoa izatea, izango litzateke. Bereziki pentsamendu gogoeatsua indartzeko, eta emozioak edo inpultsoak era konstruktiboan bideratzeko.

Estrategia psikopedagogiko horiek guztiak erabiltzeko era ugari baldin badaude ere, narratiban oinarritutako proposamena egiten dugu, hain zuzen ere ipuinez baliatuz. Ipuin bakoitzaren inguruan adibide praktikoak azter ditzakegu talde-trebetasunetan entrenatzeko eta egoera sozioemozional berezietan arazoei aurre egiteko ariketak proposatuz.



## Nancy CHACÓN ARTEAGA

DOKTORE KUBATARRA

**Balioek eta moralak pertsonen prestakuntza prozesuetan arreta berezia eskatzen dutela uste du Nancy Chacón-ek, eta ikasleak balioen gainean hezteko ezinbestekoa dela uste du. Kuban, Habanan, egoitza duen Centro de Estudios Martianos izeneko zentroan egiten du lan Chacón-ek, horren helburua Jose Martí-ren bizitza, lanak eta pentsamenduaren gaineko ikerketa eta zabalpena egitea da, eta Martí-ren pentsakeran oinarritzen dute beren lana. Etika Katedrako presidentea da Chacón eta lan pedagogikoa egiten du. Gure artean izango da egunotan.**

Etikak, gure eguneroko bizitzan betetzen duen tokitik abiatuta, belaunaldi berriak hezteko oinarri teorikoak, metodologikoak eta praktikoak eskain diezazkigukela uste du Chacón-ek. Etikak moralari buruzko ezagutza orokorrak eta zehatzak eskaintzen dizkigu, eskolako bizitza espiritual eta ideologikoen zati garrantzitsua betetzen duen fenomeno sozial konplexu moduan, familia eta komunitatea kontuan hartuta. Eta moralak, pertsonen barne munduaren, mundu subjektiboaren, oinarritzeko zatia da; pertsonen harremanetan, komunikazioan, portaertan... esku hartzen du. Pertsonak, era berean, heziketa prozesuan esku hartzen dute, hainbat eratarik, baina esko-

lako testuinguruan bat egiten dute eta harreman indibidual eta kolektiboaren sare konplexua osatzen dute guztiek; ikasleek, irakasleek, familiak, eskolako edo komunitateko langileak... Koherentzia bilatu behar da eragile sozializatzaile guztien artean eta gurasoen eskolako, kirol jarduerak, parte-hartzea eta eskola komunitatearen bizitza hobetzeko balio duten ekimen guztiak egoerak dira gizartearen hobetzeko. Hezitzaileak egiteko garrantzitsua du, beraz, bai eskolan duen lanarengatik, eta baita beste eragile sozializatzaileengan duen eraginarengatik ere. Beraz, gizartearen moralak harreman berezia du eskolarekin, ikaslearen heziketa moralak nahita zuzentzen denean, moralak eskolako giroaren eta hezkuntza prozesuaren zati delako.

Moralak eta balioak gizartearen eta pertsonen berezko konfigurazio gisa eta konfigurazio dinamiko gisa hartzen ditugu, baina pertsonak osotasun bakoitza eta errepikaez gisa hartuta. Moralak eta balioek bizitza osoan zehar laguntzen diote pertsonari eta pertsonen prestakuntza prozesuetan (hasierako prestakuntzan edota etengabeko prestakuntzan) arreta berezia eskatzen dute. Ezinbestekoa da irakaslearen prestakuntza indartzea; egoera berrien eta arazoaren aurrean praktika alternatiboak lantzea, partekatzea eta prestatzea behar-beharrezkoa da.

Pertsonengan, moralaren eta balioen garapena giza kontzientziaren eta autokontzientziaren bereizgarria da. Garapen hori hezkuntzaren adierazpena da eta pertsonen eta herrien kultura etikoa neurtzeko baliagarria da. Formula nagusia, gizakiak hobetzeko lan egitea eta mundu hobea lortzeko lan egitea da, hori guztia posible baita. Gizartearen hobetzeko balioek lehentasuna izan behar dute.


Pedagogiak ikuspegi etikoa, axiologikoa eta humanista izateak hezkuntzaren kalitatea hobetzen laguntzen duela uste du Chacón-ek. Proiektuaren gakoak, irakaslearen prestakuntza etengabeari ikuspegi integratzailetik abiatutako profesionaltasun pedagogikoa- ren ikuskera da.

# 2009ko urtarilaren 24tik otsailaren 1era



## Pedagogia 2009 Biltzarra

Bi urtetik behin egiten den Nazioarteko "Latinoamerika eta Karibe. Hezitzaileen batasunerako topaketa" biltzarrera bidaiatzen ari da HIK HASI. Aurrekoan, 2007an, 42 herrialdeetatik joandako 5.200 hezitzailek hartu zuten parte.



### Gairen baten inguruko txostena aurkez daiteke

Horretarako, ondorengo egutegia dago.

- **Laburpenen aurkezpenerako azken eguna:** 2008ko urriaren 15a.

- **Txostenen aurkezpenerako azken eguna:** 2008ko azaroaren 15a.

### Bisita berezituak heziguneetara

Habanako hainbat hezkuntza mailetako hezigune eta kultura eta zientzia arloko instituzio ezagutzeko aukera dago. Jarduera horrek hezitzaileekin, ikasleekin

# bidaiia pedagogikoa KUBAra

**PEDAGOGIA 2009, Habanako Biltzar Jauregian egingo da, urtarrilaren 26tik 29ra, goizeko 9:00etatik 17:00etara.**

Biltzarreko gai nagusiak hauek dira:

- Balioen hezkuntza eta aniztasunaren trataera.
  - Hezitzaileen hasierako eta graduatu-ondoko prestakuntza.
  - Herritarraren prestakuntza zientifikoa eta garatzailea hezkuntza maila guztietan.
  - Hezkuntza eta kultura.
  - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak hezkuntzan.
  - Alfabetizazioa eta alfabetizazio-ondokoa.
  - Eragileen eta eragile sozialen arteko integrazioa: eskola, familia, instituzioak eta erakundeak.
  - Hezkuntza fisikoa, artistikoa, sexualitate eta osasunekoak, energetikoa eta ingurumenekoa.
  - Hezkuntzaren jarduera zientifikoa.
  - Hezkuntzaren kalitatearen ebaluazioa.
  - Hezkuntza zientziak.
  - Jose Martí-ren eta Fidel Castro-ren pentsamendua Kubako Iraultzako lan hezitzailean.
  - Historiaren irakaspena.
- Gai horiek jorratuko dira Biltzarrean 19 sinposiotan, 3 jardunaldietan, eta 68 ikastaroenetan.



## Bidaia

**Urtarrilak 24:** Euskal Herria-Madril autobusean Madrill-Habana hegaldia

**Urtarrilak 31-otsailak 1:** Habana-Madril Madrill-Euskal Herria autobusean

## Biltzar Pedagogikoa

**- Urtarrilak 26-30 (astelehenetik ostiraler), 9:00etatik 17:00ak arte.**

Bertako eskolaren bat bisitatzeko eta ikuskizunetan parte hartzeko aukera ere izango da.

## Ostatua

**Riviera Hotela**, lau izarreko hotela da eta Vedado zonaldean dago, malekoiaren ondoan. **Zazpi gau, (gosariak barne)** egingo ditugu bertan. Gelak binakakoak izango dira.

## Prezioa

**1.375 euro harpidedun direnak**

1.475 euro harpidedun ez direnak

(Prezioaren barne EH-Madril eta Madrill-EH autobusak, hegaldiak, aireportutik hotelerako bidaia, 7 gau ostatuan, gosariak, Biltzar Pedagogikorako matrikula, eta bidaiaren aseguruia sartzen dira).

**Orain ordaintzeko: 500 euro** (plaza dirua sartzean gordeko da).

## Izena emateko azken eguna: Irailak 30


Bidaia pedagogikoaren kide **kopurua mugatua** da, beraz kopuru hori betetzean itxaron zerrendara pasako zinateke.

eta bertako hezkuntza komunitateko kideekin harreman zuzena izateko aukera eskaintzen du. Biltzarreko matrikula egiterakoan heziguneeen eskaintza aditzera emango da eta partaide bakoitzak aukeratu du zein hezigunera joan nahi duen.

## Ikuskizunak

Biltzarrean barruan, hasierako eta amaierako ekitaldiez gain, Karlos Mars antzokian egingo den kultur-galan parte hartzeko aukera izango da.

Txostenak aurkezteko modua, inprimakiak, eta informazio gehiago: [www.Pedagogia2009.rimed.cu](http://www.Pedagogia2009.rimed.cu) orrian duzue.



## Euskara, euskaldunak eta euskal zibilizazioa: Euskal curriculum baterako materialak

Euskaldunok ezberdinak gara. Askotan sentitu, pentsatu edo entzun dugu hori. Baina, zer dela eta? Inkontziente kolektibok gorderik ditugun zenbait alderdik eragina izan al dezakete ezberdintasun horietan? Euskal nortasuna ingurukoei transmititzeko, nola bihurtu kontziente inkontziente hori? Hori da, hain zuzen ere, ikastaroaren helburua. Erabiltzen dugun euskararen azpian eta ikasi dugun kulturaren azpian (mitologian, kantetan, bertsolaritzan, onomatopeian, jolasetan, toponimian...) dagoen esanahi sakon hori kontziente bihurtzen laguntzeko tresnak eskainiko ditu ikastaroak, **Alfontso Martinez Lizarduikoa** eta **Alizia Stürtze** ondorengo lerroetan azaldu duten moduan.

Gaur egun badakigu inkontziente kolektiboa existitzen dela, eta, zenbait ikerketa zientifikoren bidez, hainbat gauza inkontzientetik kontzientera edo kontzientetik inkontzientera pasa daitezkeela frogatu da. Populazioen genetikaren inguruko ikerketek laguntza handia eskaini dute azken urteetan, eta horiek, zer garen eta horrelakoak zergatik garen jakiteko informazio zabalak eskaini digute. Herri batek, urte askotan zehar, asimilazio-prozesua jasaten duenean, haren energia murriztu egiten da eta zenbait alderdi higatuz jo-



**Alfontso MARTINEZ LIZARDUIKOA**

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO EUSKAL ANTROPOLOGIAKO IRAKASLEA. IDAZLEA

aten dira erabiltzen ez direlako; azkenean, ahaztu egiten dira eta inkontzientera pasatzen dira. Inkontziente horrek, dena den, kolektibitatean irauten du (adibidez, hizkuntzak bizirik irauten badu, Euskal Herrian gertatzen den moduan), eta hori erreal bilakatzen da euskal jendeak bere burua munduan egoteko era (kultura) taldean dagoela ezagutzen duenean: toponimian, kantuetan, bertsolaritzan, jaietan, hizkuntzan, zenbaki-sistemak antolatzerakoan, koloreak izendatzerakoan, auzolanean, matriarkalismoan, mundu sinboliko panteista-naturalistan, eta abarretan. Elementu horiek guztiak antzina-koak dira, baina oraindik ere erabiltzen ditugu nahiz eta haien esangurasakona kontzienteki ezezaguna zaigun... Hori dela eta erabiltzen dugu inkontziente hitza. Elementu horiek guztiak gure kontzientera ekartzea, eta gure nortasunaren transmisioan berriro ere zirkulazioan jartzea da euskal antropologiak eta irakaskuntzak egin behar duten ezinbesteko lana, herri desberdindu-



**Alizia STÜRTZE**

EUSKAL HERRIKO HISTORIAREN IKERTZAILEA. GAIK ARGITALETXEAREN ARDURADUNA. IDAZLEA

izaten jarraitzeko.

Gure herria, jakina, modernotasunean txertaturik dago eta pentsatzeko era logiko arrazionalistaz blai eginda dago. Ilustratuak gara eta logika abstraktua menderatzen dugu. Baina gure arimaren beste aldean, beste logika mota bat, aspaldi-aspaldikoa dena, oraindik bizirik dago. Logika hori herri aborigenena da (Europako azken herri aborigena baita gurea) eta Lévi-Strauss antropologoak “konkretuaren logika” deitu zion. Konkretuaren logikaren arabera, mundua ulertzeko erabiltzen diren kategoriak kontzeptuak baino kontzepzioak dira. Alegia, irudi abstraktuak (konbentzionalak) izan baino, konkretuak eta sentimenduz beterik dauden kategoriak dira eta naturarekin harreman handia dute. Azken horrek inguruan ditugun beste kulturetiko guztiz ezberdin egiten gaitu.

Koloreei dagokionez, adibidez, euskaldunok espektro kromatikoa beste era batera antolatua izan dugu, eta egutegiari dagokionez, esaterako,

ilargi-egutegia izan dugu oinarri denbora neurtzeko nahiz eta orain greko-erromatarrek ekarritakoarekin nahasturik dagoen. Goi Paleolito garaietatik (30.000 urtetik) informazio askok iraun du euskal kulturean eta Jose Migel Barandiaranek esaten zuenarekin bat egin behar dugu baieztapen honetan: Euskaldun Herria herri kontserbado-rea da. Alegia, lehen genuena aldatu den arren, antzinakoa ez dugu guztiz baztertu, eta garatuz, geureari eutsi diogu.

### Zailtasunak

Inkontziente kolektiboa izateak, talde batek bere burua subjektutzat onartzea dakar, eta, bereizte horrek irautea nahi duelako bere horretan jarraitzea, askotan, arazo politiko bihurtu daiteke. Beraz, erresistentzia asko topa ditzakegu gure herriaren inkontzientea kontziente bihurtzeko bidean. Izan ere, kontuan hartu behar dugu horrelako prozesu bat martxan jartzea psikoa-nalisi kolektiboaren prozesu batean murgiltzea bezalakoa dela. Eta horrekin batera geure burua ezagutzea, edota gure ondarea osatzen duten alderdi asko interpretatzen eta ulertzen hastea.

Mari aztertzea, adibidez, emakumeek Euskal Herrian izan duten garrantziaren adierazle da. Hori, gizarte matriarkalistarekin eta gizarte-sistema berdintzaileekin loturik dago, eta baita zuzenbide ez patriarkalista eta hiriritasunaren aurrean herritartasunaren aldeko sistemarekin ere. Bizia bi elementurekin lotzen zen: emakumearekin eta lurrarekin. Biek ematen dute bizia, eta biziaren sekretua azaltzeko emakumea da erreferentzia, unibertso sinbolikoa egituratzerakoan. Jainkoa emakume jaio zen gure artean. Gainera, Lurra osotasuna da eta dena dago harekin elkarloturik. Unibertso panteista batean bizi izan gara, beraz, eta euskaldunok milaka urtetan eraikitako mundu sin-


boliko horrek zerikusirik ez du gero greziar-erromatarrek ekarritako jainko ar, krudel eta zanpatzaileekin. Gainera, Lurra osotasuna izanda (gu ere) eta zati guztiak harekin elkarloturik izanik, jabetza pribatuaren printzipioa anakronismo hutsa zen. Lurrak komunalak ziren eta lanaren eta produkzioaren helburua ez zen etengabe garatzea, bizitzea baizik. Gaur egun logika horrekin biziko bagina, antikapitalista bihurtuko ginatke, ezinbestean. Era berean, denboraren kontzeptua ez zen lineala, zirkularra baizik, eta zirkulu hori oso ongi lotzen zen ilargi-zikloarekin.

Paleoantropologiak, paleohizkuntzalaritzak, hermeneutikak eta populazioen genetikak egindako azken ikerketek Euskal Herria Europako enboregune dute. Antropologiaren harribitxi baten aurrean gaudela diote munduko ikerlari ospetsuenek. Alabaina, arazo bat dago, eta hau da: informazio hori gutxi batzuek dute eskura, elitista da oso. Oso garrantzitsua litzateke, beraz, gure irakasleen artean ahalik eta gehien zabaltzea, haiek transmisio-lana egin dezaten, eta garrantzitsua izango litzateke baita ere, herritarren artean ezagutaraztea, gure herriaren autoestima eta gure kulturarekiko arreta hobetzeko. Dena den jardunaldiotan, irakasleak estrategikoak direnaren mezua zabaltu behar da. Hezkuntza estrategikoa da eta inoiz baino garrantzi handiagoa eman behar diogula uste dugu. Hori dela eta, ikastaroaren bidez parte-hartzaileak trebatuko ditugu, ondoren, bakoitzak, bere kasa hemen ika-



sitakoa eta lortutako informazioa zabal dezan.

izango duena. Arazoa da, informazioa gutxi batzuen esku dagoela, elitista dela. Garrantzitsua da, ordea, ahalik eta gehien zabaltzea eta hezkuntzak horretan paper garrantzitsua joko dezake. Guztia kontziente egin eta zabaltu behar dugu, eta irakasleak estrategikoak dira lan hori egiteko. Bide horretan hezkuntza estrategikoa da, nahiz eta ibilbide pertsonalak ere berebiziko garrantzia duen. Hori dela eta, ikastaroaren bidez parte-hartzaileak trebatuko ditugu, ondoren, bakoitzak, bere kasa gaia azter dezan.



# galdeidazue

Coachingak lagun al dezake hezkuntzan? Nola? Zer tresna eskaintzen du



**Mirari BEREZIARTUA**

COACHINGALDAKETA COACHING ESKOLAKO KIDEA

Sarritan, guk geuk geure buruari hainbat gauza sinestarazten diogu. Hori dela eta ez ditugu helburu, amets edo ilusio batzuk betetzen. Baina, zein helburu ez da posible, guk errealitate bihurtzea nahi badugu?

"Pertsonak jakituria badu eta bere baitan dira bere buruak egiten dizkion galderen erantzunak"; Sokratesen filofiatik jasotako hori da coachingaren



**Nerea REDONDO**

COACHINGALDAKETA COACHING ESKOLAKO KIDEA

oinarrian dagoen ideia. Galdera ego-kiak eginaz, norberak bere buruari erantzun diezaion eragin nahi du metodologia horrek. Coaching prozesuaren arrakasta galdera horien baitan dago.

Bai pertsoneri eta bai erakundeei laguntzeko, artea, teknika eta egitura batera biltzen dituen jardunbide berria da coachinga. Osotasunean oinarrituz, adimen emozionalean arreta ipiniz, es-

talgabetze bidean laguntzen duena. Bakoitzaren nahiak argitzeko, erantzukizunak bideratzeko eta gaitasunak desestaltzeko jardunbidea. Ikuspegi berri batetik bizitza begiratzen ikasteko, eta harreman sendoak egiten modu eraginkorrean laguntzeko. Erronka berriei -geure osotasunean- modu egokian aurre egiteko entrenamendu indartsua. Pertsoneri eta erakundeei laguntzeko, ikuspegi berriak eta modu eraginkorrak ikasi nahi dituenarentzat. Galdera bidez bere nahiak, erantzukizunak eta gaitasunak deskubritzen lagunduz.

Gaur egun onartua dago, bai garapen pertsonalean, bai erakundeen garapenean coaching-ak, epe motzean emaitza harrigarriak lortzen dituela.

Hain zuzen, oinarri teorikoa, adimen emozionalaren ildotik dator. Adimen emozionalaren teoriak dioenez, orain artean gure kulturaren eta hezkuntza ibilbidean arrazonomendua garatu da, eta alde emozionalari ez zaio hainbesteko garrantzirik eman. Pertsona



batzuek alde emozionalean gaitasun handiagoa dute, eta horrek, jende horrengan, balio ez duenaren sentsazioa sorrarazi du. Sentsazio hori aldatu egin behar da.

Coachinga kirolaren mundutik heldu zen. «Coach» hitzak entrenatzaile esan nahi du ingelesez. Elite kirolariak entrenatzen zituen tenis entrenatzaile bat izan zen, akatsak zuzendu beharrean, galdera bitartez kirolarien nahiak ezagutzuz eta haien indarguneak garrantuz, aurrerapen handiagoa lortzen zuela ohartzen lehena. Ondotik, metodologia hori marketingaren esparruan aplikatu zen eta, egun, enpresa kudeaketan tresna interesgarri izateaz gain, norbanakoak laguntzeko ere erabiltzen da. Orduan, zergatik ez ikastetxetan? Haur edo gazteekin? Gure inguruan gero eta ohikoagoa da jendeak era horretako zerbitzuak eskatzea, eta beste herrialde batzuetan arrakasta itzela du coachingnak dagoeneko.

Coachingna laguntza pertsonal moduan, hainbat helburu lortzeko baliagarri da. Bakoitzak erabaki edo nahi duen helburu horretarako:

- Zerbait aldatzen laguntzeko.
- Zer nahi duzun argitzen laguntzeko.
- Motibazioa nola indartu jakiteko.
- Zure harremanak hobetzen laguntzeko.
- Zure balio pertsonalak eta laneoak nola lerrokatu jakiteko.
- Helburu jakinak lortzen laguntzeko.

Eta zuen buruei galdetuko diezue: nola?

Ikuspegi berri batekin, elkarrizketan, batez ere galdera bidez eginez.

Coach-entrenatzaileak, zure gaitasun guztiak maila gorenean erabiltzeko paradan ipintzen laguntzen dizu. Horrela, bakoitzak eman dezakeen onena nola eman jakiteko jardunbidea samurtu egiten da.

Pertsona bere osotasunean hartzen da. Pentsamenduek eta emozioek, denek batera jokatzen dute gure bizitzan, eta hori kontutan hartzen laguntzen da.

Konturatu gabe ongi egiten dugu-

na, konturatuta egitera pasatzea da. Askoz ere indar handiagoa ematen digu horrek.

Oztopoetan zentratzeko daukagun joeratik atera eta irtenbideak fokatzeko ikuspegi erabiltzen du coach-entrenatzaileak. Coach-entrenatzailea euskarri bat da. Arkimedesek zioen bezala, “emaidazue euskarri puntu bat eta mundua mugituko dut”. Coach-ak euskarria emango dizu, eta zeuk erabakiko duzu zer, noiz eta nola mugitu nahi duzun.

Frogatuta dago, coachingekin oso emaitza onak lortzen direla, epe laburrean; konpromisoak lehen saiotik hartzen direlako eta praktikan jartzen direlako.

Eta erakundeei edo ikastetxeei laguntzeko, baliagarri da. Dagoeneko ezagutzeko aukera izan dutenek, badakite gauza hauetan laguntzen duela:

- Eraginkorragoa izaten.



**Bai pertsoneri eta bai erakundeei laguntzeko, artea, teknika eta egitura batera biltzen dituen jardunbide berria da coachinga. Osotasunean oinarrituz, adimen emozionalean arreta ipiniz, estalgabetze bidean laguntzen duena. Bakoitzaren nahiak argitzeko, erantzukizunak bideratzeko eta gaitasunak desestaltzeko jardunbidea.**





**Egun coachingak duen arazo handiena ezezagutza da. Ahoz ahoko informazioak bultzatzen ditu pertsonak coachinga egitera. Abiadura handian bizi gara eta ez gara une batez esertzen nola gauden, zer nahi dugun eta nahi dugun hori lortzearen zer egin beharko genukeen aztertzeko.**

- Denbora kudeatzen.
- Eremu berriak ezagutzen.
- Lanarekin gozatzen.
- Neurtzeko moduko helburuak lortzen.

• Bizitza pertsonala, familiarra eta profesionala orekatzen.

Aholkularitza enpresak gero eta gehiago ari dira coaching zerbitzuak eskaintzen, merkatuak hala eskatzen duelako. Etorkizunari aurrea hartzean dago gakoa.

Enpresei eta giza erakundeei zerbitzua eskaintzen diegu eta lidertzak beritzen laguntzen dugu. Zuzendaritzei ere, coaching ikuspegitik funtzionatzen hasten laguntzen diegu.

Interesatuei eskaintza zabala egiten diegu, bakoitzak nahi duenaren arabera eskakizunari erantzuteko. Errealitatearen arabera proposamenak egiten ditugu.

Coachinga psikologia, psikiatria eta bestelako terapietatik bereizten da. Oraina abiapuntu harturik etorkizunari so egiten dio coachingak, ez du iraga-

nean egindakoan edo gertatukoan interesik. Horretan bereizten da beste hainbat terapia edo baliabidetatik. Edozein patologiaren aurrean, bezeroak beste espezialista batengana joan dadin lagun dezake, besterik ez.

Coacha entrenatzaile moduko bat da, une jakin batean bizi dugun egoeratik desio dugun egoera horretara helitzen laguntzen diguna. Ibilbide horretan, abiapuntua zehazten eta helburua betetzen lagunduko digu, gure indarguneak sendotuz. Ekintza da funtsa, ekintzarik gabe ez dago errealitate bihurtzen den helbururik. Ekintza horiek gerta daitezten, gure esku dagoena egiten lagunduko digu coachingak.

### Coachinga prozesu bat da

Coachingaren prozesua laburra izaten da; batezbeste hiru hilabete irauten du eta sei bat saio egiten dira. Hala ere, erritmoa ezberdina izaten da kasu bakoitzean. Helburuak ere askotarikoak izaten dira. Batzuetan oso zehatza izaten da: lana bilatzea, adibidez. Beste batzuetan, ageriko helburu horren atzean ezkutuagoko bat izaten da, eta prozesuan zehar alda daiteke. Garrantzitsuenak, prozesu horretan bertan, eguneroko bizitzan erabilgarri izango zaizkigun tresnak geureganatzea da; ohitura berri batzuk hartzea, azken batean.

Coachinga hiru modutan egin daiteke: aurrez-aurre, telefonoz eta internet bidez. Metodologia ez da gehiegialdatzen: 50 bat minutu irauten duen saio batean, coachak galderak egingo ditu, entzuketa sakona egingo du eta bezeroak ahoz esaten duenaz gain, keinu, isilune, hasperen eta antzerakoen bidez helarazten diona jasoko du. Bezeroari konfidantza eta konfidentzialtasuna eskeiniz, eta epaiketa albo batera utziz, izugarritzko lorpenak izaten dira, bezeroak, pertsonen indarguneak identifikatzen laguntzeko euskarria duelako eta horiek erabiltzen ikasten duelako. Saio bakoitzaren amaieran bezeroak berak balorazioa egiten du eta ekintza batzuekiko konpromisoa hartzen du.

Prozesua egokia izan bada, bezeroak eguneroko bizitzan bere kabuz funtzionatzeko gai izan beharko luke. Coachingaren laguntzaz helburua lortzeko ibilbidea hasiko du, baina aldaketa bere esku egongo da; ezagutzen ez zuen indarra ezagutuko du eta aparteko motibazio bati esker lehenago alboratu izan dituen desioak egi bihurtzeko behar dituen tresnak bereganatuko ditu.

Kontuan izan behar da, hala ere, coachingak konponbideetan jartzen duela arreta, baina bere jomuga ez dela arazoak konpontzea. Coachak, ez du bezeroak esan edo egin nahi duena epaitzen; era berean, bezeroak bere burua epai ez dezan saiatzen da. Ez du aholkurik ematen.

### Ezagun egiteko bidean

Egun coachingak duen arazo handiena ezezagutza da. Ahoz ahoko informazioak bultzatzen ditu pertsonak coachinga egitera. Abiadura handian bizi gara eta ez gara une batez esertzen nola gauden, zer nahi dugun eta nahi dugun hori lortzearen zer egin beharko genukeen aztertzeko. Normalki egoera horretan dago coach batengana jotzen duen pertsona. Osasuntsu dago, eta bere egoera pertsonala hobetu nahi du, besterik gabe.

Coach izateko ez da aurretiko prestakuntza berezirik behar; hainbat esparrutako jendea ari da horretan lanean. Gure eskolatik, askotariko jendea pasa da; zenbait lanbidetako profesionalak, emakumeak, gizonezkoak, hainbat adinetako jendea... Hezkuntza esparruko jendea ere izan dugu, bai haur eta gazteekin erabiltzeko, baita irakasleen arteko eta gurasoekiko harremanak hobetzeko ere. Beste askok, pertsonalki hartzen dute coachinga egiteko erabakia eta askorentzat, bizitza filosofia ere bihurtzen da.

Euskal Herrian Coachingaldaketa, Coaching eskolak lau urte daramatza lanean. Egun Azpeitian egin daitezke coaching ikastaroak, eta baita Hik Hasi-ko topaketetan ere.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



2008ko uztaila

# ikastaroen laburpenak

# Nire hezitzaile-profila



## Arantzazu LOIDI GARITANO

PRH FORMAZIO ESKOLAKO HELDUEN HEZITZAILEA ETA  
GARAPEN PERTSONALEAN ADITUA

Heztea funtsezko eginkizuna da pertsonen eta gizartearen garapenerako, eta ez da aski eman beharreko materia menperatzea edo ikasgai jakin bat emateko pedagogia ona izatea. Ikasgaiak emate hutsetik haratago, konpetentziak, gaitasunak garatzen irakastea eskatzen dio, gainera, orain, curriculumak irakasleari. Ikasleari bere gaitasun pertsonalak garatzen eta izaten irakatsi behar dio hezitzaileak, bost konpetentzia ardatzen barruan. Eta horretan saiatzeko bide bakarra, lehenik eta behin bide hori norberak, hezitzaileak berak egitea da. Norbere gaitasunak ezagutzetik hasi behar du hezitzaileak, horiek garatu eta ikasleari bereak ezaugarritzen eta garatzen laguntzeko.

“Nire hezitzaile-profila” formazio moduluak hezitzaile eginkizunean bizi dituzten gaitasunak eta berezitasunak ezagutzen laguntzen die hezitzaileei, horren ondorioz, beren bokazioa era kontzienteagoan bizitzeko, pertsona modura lanean errealizatzeko, eta hezitzaile lana hobeto egin ahal izateko.

Ikastaroak bi helburu ditu:

- Norberak bere hezitzaile-profila hobeto ezagutzea eta hezitzaile-izaera osatzen duten gaitasunez ohartzea.

- Norbere burua ulertu eta hezitzaile lana eta lan horretako zailtasunak ho-

beto bizitzen laguntzea.

Ikastaroaren edukia edozein hezitzaile mailatako irakasle eta hezitzaile, nahiz orientazio psikopedagogikoan eta hezkuntzako jarduera ez arautuan diharduten profesionaleri zuzendua dago. Bere arlo profesionalaren bizipena aztertu, lanbidean errealizatzeko aukera ematen dionari begira jarri, eta aurrera egin nahi duen edozein hezitzaile-entzatzat oso aproposa da ikastaroa. Gaia eta bertan lantzen den edukia jorratzeaz gain, PRH metodologia eta psikopedagogia ezagutzen ez duenarentzat lehen hurbilpena egiteko aukera eskaintzen du moduluak.

Ikastaroan erabiliko den metodologiari dagokionez, *Personalidad y Rela-*

*ciones Humanas-PRH* nazioarteko Formazio Eskolaren metodologia aktiboa lantzen da, pertsona bakoitzak bere esperientzia pertsonala aztertzeko idatzizko ariketa txikiak egiten dira, gure metodologiaren oinarri den auto-deskubrimendua bultzatu eta horrela norberak bere burua ezagutu, ulertu eta bere nortasuna garatzen laguntzeko.

Norbere obserbazioa libreki taldean hitz egiteko aukera eskaintzen da eta irakasleak PRH psikopedagogiaren ikerketaren fruitu den pertsonari eta haren garapen prozesuari buruzko azalpen-sistema koherente bat azaltzen du. Eta hori guztia talde-giro atsegina, baikor, errespetuzko eta aberasgarria. [www.prh-iberica.com](http://www.prh-iberica.com)



# Waldorf pedagogia



## Igor CAMINO ORTIZ DE BARRÓN

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA.  
HEZKUNTZAREN TEORIA ETA HISTORIA SAILA

Udako Topaketetarako proposatutako ikastaroaren bidez lortu nahi dudana helburu nagusia, Waldorf Pedagogiaren sorrerarentz eramango gaituen ibilbidea eskaintzea da, elkarrekin egin dezagun, horren paisaiak eskaintzen dizkigun ñabarduretzat gozatuz. Beraz, guretzat ibilbidearen helmuga izango den Waldorf Pedagogiara iritsi baino lehenago, eta horrek eskaintako edertasunaz modu egokiagoan disfrutatzea ahalbidetzeko, ibilbidea zenbait etapatan banatuko dugu, horietako bakoitzean, geldiduna egiteko eta ikusitakoari buruzko hausnarketa eta eztabaida sortzeko aukera edukiz.

Ibilbidearen helmuga aipatu dudanez, garrantzitsua iruditzen zait ibilbidearen jatorriari ere erreferentzia egitea: Waldorf Pedagogiak, aztergai izango diren beste erreferente nagusi batzuen modura, hezkuntza berrikuntzaren beharra aldarrikatu zuen, horri benetan esanahia emateko urratsak ezarriz. Kronologikoki, ibilbidearen jatorria XIX. mende bukaeran, eta batez ere, XX. mende hasieran kokatuko dugu, orduan hasi baitziren indarra hartzen hezkuntza beste ikuspegi batetik aztertze beharra azpimarratzen zuten mugimen-



duak. Ordura arte Eskola Tradizionalaren irakaskuntza eredu nagusitzen zen, baina berrikuntzaren beharra aldarrikatzen zutenen ikuspegitik, hezkuntza eredu batek bestelako konfigurazioa erakutsi behar zuen. Eskola Berriaren mugimenduak eskaini zituen konfigurazio horren ardatz nagusiak: horien guztien artean paidozentrismoa da azpimarragarria. Hezkuntza prozesuan haurri benerako protagonismoa eman behar zaiola aldarrikatzen du, haur eta pertsona moduan dituen interesen arabera lan eginez. Eskola Berriarekin lotuta, beste ikuspegi batzuk azpimarratzea ere oso erakargarria izango zaigulakoan nago, hala nola Neill eta Summerhill-eko Eskola, batez ere, askatasunaren inguruko planteamendua garatuko duena.

Ardatz horiek izango dira gure ibilbidearen etapa batzuen adibidea, horietan zehar garatutako hausnarketak eta eztabaidak, ibilbidearen helmuga izango den Waldorf Pedagogia, askoz modu esanguratsuagoan aztertzea ahalbideratuko digute. Hezkuntza berrikuntza beharra aipatu dugu, eta

Waldorf Pedagogiak eskaintako planteamendua erabat txertatuko da hori lortzeko saiakeran; hezkuntza askatasun indibidualarekiko garapen moduan kontsideratu nahi du: "Gure helburu nagusia, euren kabuz beren bizitzari helburuak jartzeko eta norabidea emateko gai izango diren gizabanako libreak hezte behar da". R. Steiner.

Horiek dira, beraz, proposatutako ibilbideari buruzko azalpen batzuk, baina paisia benetan gozatzeko, ibiltzeari ekitea besterik ez zaigu gertzen.



# Txokoa, negoziazioa eta bitartekaritza: gatazkak konpontzeko prozedura desberdinak



**Amaia AGIRRE**

FORMATZAILEA, BITARTEKARIA ETA GEUZeko PARTAIDEA  
(GATAZKAK ERALDATZEKO UNIBERTSITATE ZENTROA)

Ikastaroaren helburu nagusia irakasle eta ikasleen arteko harremanek eraikitzen dituzten espazio berriez mintzatzea da, non errespetua, onarpena eta elkar ulertzea bideratzen diren.

Gelako harremanei buruz ari garenean, bizikidetzaz edo gatazken ebatzenaz ari gara. Eskola, haurren garapen sozial, afektibo eta moralerako inguru egokia da, etengabeko ikasketa esparrua baita. Bertan ikasleak bere jokabideak, emozioak, trebetasunak, arauak eta abar praktikatzeko dituzte.

Ikaslearentzat ikastetxea eta, batez ere, ikasgela, bere gizarte txiki bihurtu dira, hor landuko baititu gaitasunen garapena, trebetasun sozialak eta parte hartzeko eta bestearekiko errespetuzko balioak.

Ikastetxean bizikidetzaren lantzeko eta giro egokia lortzeko, gatazken ebatzpenaren eta bake kulturaren oinarritzen den hezkuntza landu beharko litzateke. Horrek eskolan aldaketa sistemikoa sortuko luke, eta ez soilik curriculum aldaketa (Ramón Alzate).

Eskolan sortzen diren harremanak lantzeko, Bizikidetzaren Eredu Globala proposatzen dugu. Eredu horrek, esku-hartze hezigarrian oinarrituz, eskolaren bizikidetzaren ereduaren aldaketa proposatzen du. Eredu horren helbu-

ria, gatazken eraldapen baketsuak eta aniztasunaren printzipioak ikastetxean gertatzen diren harreman guztietan eragina izatea da. Eredu horrek, prebentziorako eta eraldaketarako ikuspuntua izanik, ikastetxeko elkarbizitzaren bost eremuetan du eragina: disiplina sisteman, curriculumean, pedagogian, eskolako kulturaren eta familian. Hori guztia burutzeko hainbat programaz osaturik dago: Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako gatazkak eraldatzeko curriculum programa, irakasleen prestakuntza programa, sendiaren bizikidetzaren programa, disiplina positiboa programa, gatazkak ebatzeko lankidetzaren prozedurak (bitartekaritza, negoziazioa, kontsentsu prozesuak...), programa psikosozialak (droga-mendekotasunen prebentzioa, berdinen arteko erasoaren aurkako programa...), hezkuntza sozioemozionala eta lankidetzaren ikaskuntza.

Ikastaroan bi esparru ukitu nahiko genituzke. Alde batetik, esku hartzeko programa psikosoziala landuko dugu, berdinen arteko erasoaren aurkako programa; eta bestetik, gatazkak ebatzeko lankidetzaren prozedura, bitartekaritza programa.

Pertsonen arteko harremanetan oinarrituta dagoen hezkuntza egokialantzeko oso garrantzitsua eta beharrezkoa da ikasleari indarkeria eta gehiegikeriazko jokabideak onartezinak direla, eta gatazkak konpontzeko desegokiak eta psikologikoki eta moraliki mingarriak direla argi eta garbi agertzea. Indarkeria fenomeno sozial eta psikologikoa da; soziala, pertsonen arteko harremanetan garatzen delako, eta psikologikoa, parte hartzen duten pertsona guztiengan eragin ezkorra duelako: biktimeengan, erasotzaileengan eta ikusleengan. Biktimek autoestimua eta autokontzeptuaren narriadura sufritzen dute. Erasotzaileak ezkutuko kontzientzia batekin erlazioatzen dira, beren garapen soziorpertsonalean e-



ta moralean eragin handia izanik eta jokabide kriminaletara gerturatuz. Ikusleak ere moraliki inplikaturik daude, eta beldurrezko eta erruzko sentimenduak izaten dituzte. Beraz, bullying-aren aurka esku hartzen duen programa batek, biktimeak, erasotzaileak eta ikusleak kontuan izango ditu, denek parte hartzen dutelako eta indarkeriak guztiengan ondorio ezkorrak dituelako.

Bestalde, gatazkak, prozesu naturala izanik, hainbat interes eta behar daudenean gertatzen da, baina ez du beti indarkeria sortzen. Hori kontuan hartuta, gatazkak konpontzeko hainbat lankidetzaren prozedura daude; haien artean Bitartekaritza dago. Bitartekaritza programak partaidetzan, elkarlanean eta elkarrizketan oinarriturik daude, eta horien helburu nagusia eskolan gertatzen diren gatazkak konpontzea da.

Ikastaro honetan aipatutako kontzeptuak eta lan ildoak garatuko ditugu. Gai horiek lantzeko, esperientziak irakatsi digunari eta irakasle gehiengoak eskatzen duenari jarraiki, praktikatasean oinarrituko gara.

# Ahotsaren erabilera egokia



**Jaione TXAPARTEGI**

ARANSIKO LOGOPEDA

Gaur egun, zenbait ikerketaren arabera, irakasleen % 62k ahots arazoak dituela esan dezakegu. Kopuru horretan, arazo organikoa dutenen eta bestelako sintomatologia dutenen arteko bereizketa egin behar da. Horien artean, % 20k ahots kordetan hainbat patologia ditu, baina beste % 42k disfonia funtzionala du. Hau da, ahots kordetan ez dute gaitzik, baina ahots desegokiaren zenbait sintoma sentitu dituzte.

Ahots arazoan ondorioz, baja gehien hartzen duen lantaldea da irakasleena.

Bi hitzetan laburbiltzeko, arazo horiek arrazoi hauengatik sor daitezke:

- Ahotsaren gehiegizko erabilera (abusua): asko hitz egitea, oihu egitea, ez-tula...

- Ahotsaren erabilera desegokia: intentsitate edo tonu desegokian hitz egitea, arnasketa era egokian ez koordinatzea...

Beraz, irakasleek ahotsarekin zerikusia duten arazoak dituztela baieztatu dezakegu. Gure ahotsa nekatzea, eta ahots esfortzu handia egitea, egoera hauen ondorioz izaten da: haur kopuru handia duten taldeen aurrean hitz egiteagatik, talde zatatsua izateagatik, arnasketa egokiaren kontzientzia ez edukitzeagatik, segidan ordu gehiegiz

hitz egiteagatik, intentsitatea ez kontrolatzeagatik...

Ahots esfortzua gutxitzea eta ahotsak dituen aukera zabal guztiak barneratzea komeni zaigu. Eta, horretarako, ahots teknika egokia erabiltzea interesatzen zaigu. Lehenik eta behin, ahotsaren erabileraren oinarria lortu nahi dugu. Nola lortuko dugu teknika egokia, ez badakigu ahotsa zer den eta nola lortzen den, edo ez baditugu ahotsaren ezaugarri nagusiak ezagutzen?

Ezin dugu gure ahotsaren kontrol egokia eduki, intentsitatea zer den ez badakigu, eta nola kontrola dezakegun ikasten ez badugu... Gauza bera gertatzen da ahoskatzeaz, erritmoaz, elkarriketarako ohiko tonuaz edo ahotsaren proiektzioaz aritzen bagara.

Bestalde, norberak bere ahotsa eza-gutzeak ere garrantzi handia du, norberaren ahotsa noraino irits daitekeen eta egoera bakoitzean ahotsaren erabilerak nolako izan behar duen jakiteko.

Pertsona bakoitzak bere ahotsa du, eta ahots horrek ezaugarri bereziak ditu. Tinbreak, tonuak eta intentsitateak ematen diote identitatea norberaren ahotsari. Horietako batek huts egiten badu, ondorio hauek dakartza:

- Hitz egitean haize hotsa entzutea.
- Intentsitate baxuan ahotsa ateratzeko zailtasunak edukitzea.
- Eguna bukatzean ahotsa nekatuta sentitzea.
- Ahotsa indarrak gabe edukitzea.
- Hitz egitean ahotsa puskatzea.
- Eztatarran zerbait arraroa sentitzea (presioa, bola bat...).

Sintoma horiek guztiak norberaren gorputzean bereizten eta, ahal den neurrian, saihesten ikasiko dugu.

Bereziki, azken urteotan ahots arazok eta disfoniak haurrengan izan duten gorakada nabarmena aipatu nahi nuke. Horretan, inguruko giroak, zaratak, imitazioak... eragin handia izan du. Hori dela eta, irakasleak nola jokatu jakin behar du: jolas garaietan eta gela

barruan ahotsa kontrolatzen, norberak ahotsa egoki erabiltzen haurrek eredu gisa har dezaten saiatzen...

Gaur egun irakasleengan sortzen diren patologia ezagunenak ere landuko ditugu: laringitisak, noduluak, polipoak, edemak, korditisak, banden hipertonia...

Ikastaroan ahotsa egoki erabiltzen ikasiko dugu, praktika eginez. Hauek dira landuko ditugun atal nagusiak:

- Arnasketa egokia nolako den ikasiko dugu. Diafragmaren mugimendua eta euskarria, fonazio denborak nola luzatu, zer egin aierik gabe ez gelditzea, botatzen dugun airea nola erregulatu...

- Erlaxazioa: muskulu-tentsioak gutxitzen saiatuko gara; lepoko eta sor-baldako erlaxazioaz gain, orokorra ere egingo dugu.

Hitz egitean postura egokia izateak duen garrantzia ere ikasiko dugu. Horrek guztiak airea urdailetik bultzatzea errazten digu. Presio handiagoa lortzen dugu eta airea hobeto aprobetxatu dezakegu.

- Artikulazio eta erresonantzia egokia erabiltzen baditugu, ahotsa esfortzurik gabe eta lasai aterako zaigu.

- Horrela, intentsitate egokian, ongi ahoskatuz eta erritmo egokian hitz eginez, ahotsaren proiektzio egokia lortzen ikasiko dugu.

- Prebentzio neurriak: inguruko zaratara ahalik eta baxuena izatea, ez erretzea, hidratazio maila onari eustea... Eta gure ahalmenaren gainetik ez hitz egiten, ahots baliabideak ondo erabiltzen, gehiegizko oihuak saihesten, ez-tula ez egiten... ikasiko dugu.

- Azkenik, ikasi duguna eguneroko ahotsarekin aplikatuko dugu: ikasgai bat ahoz aurkezten, irakurtzen, haur kantak abesten, ipuinak kontatzen...

Eguneroko eginbeharretan ahotsa ahalik eta erarik erlaxatuenean eta nekerik gabe erabiltzen ikastea izango da gure helburu nagusia.

# Ahozkotasuna eskolan lantzeko metodoa



**Andoni EGAÑA**


BERTSOLARIA

Gauregungo gizarte aurreratu-abe-ratsak aztertu dituzten ikerlariak aho batez aitortzen dute ahozkotasunak (ahoz modu eraginkorrean komunikatzeko gaitasunak) gero eta garrantzi handiagoa duela, eta ez jardun esparru jakin batzuetan soilik, jardun esparru guztietan baizik.

Eskolan, ordea, eta salbuespenak salbu, apenas eskaintzen zaion arretarik itxura guztien arabera ezinbestekoa den kontu horri. Eskolaren zeregin nagusia ikasleak mundurako prestatzea baldin bada, ezin esan, ahozkotasunaren alorrean, zuzen ari denik.

Idatzizkoan ere, zuzentasuna lehenesten du ia beti eskolak, egokitasunaren kaltetan. Gauzak horrela, hezkuntza sistema erro-errotik irauli beharra dagoela uste dugu. Egin beharreko lanaren eredu izan nahi luke ikastaro honetan aurkeztu nahi dugun metodoak.

Gurea ez da bertsolaritza lantzeko metodoa, baina bat-bateko bertsoak hartzen ditugu abiapuntutzat. Alde horretatik, ezinbestekoa da bat-bateko bertsogintzaren oinarri nagusiak eza-gutzea. Besteak beste, bertsolaritzaren alderdi erretorikoaz jabetzeko. Eskolak ikasleen ahozko komunikazio gai-



**Xabier PAIA**

BERTSOLARIA

tasuna landu eta bermatu nahi badu, ezin dezake albora utzi gure gizartean ahoz komunikatzen arrakasta gehien lortu dutenen jardun eredugarria. Gainera, bertsoa neurri-neurriko diskurtsoa da, eta lanketarako ezinago egokia. Aurkeztuko dugun metodoa zortzi urteko lanaren emaitza da, eta birritan probatua dugu, aplikazio esperimenta-

len bidez, hainbat eskoletan.

Aplikazio esperimental horietan dagoeneko probatuak ditugun hainbat unitate didaktikoren azalpen praktikoa (aplikazioaren simulazioa) izango da ikastaroaren ardatz nagusia, unitateok behar bezala ulertzeko (eta berriak sortzeko) ezinbestekoak diren erreferentzia teorikoekin batera.





# 0-5 urteko haurrentzat kantu eta jolasak



## Jaime ALTUNA, Maite ASENSIO eta OIER AGIRRESAROBE

GIPUZKOAKO URTXINTXA ESKOLAKO HEZITZAILEAK

Eduardo Galeano idazleak hitz hauek idatzi zituen:

*Madriko ostatu bateko horman, kartel bat dago: Debeekatuta dago abes-tea, dio.*

*Rio de Janeiroko aireportuko horman, kartel bat dago: Debeekatuta dago maletak eramateko orgatxoekin jolas egitea.*

*Beraz: oraindik ere bada abesten duenik, oraindik ere bada jolas egiten duenik.*

Hori da guk proposatu nahi duguna: abes-tea eta jolastea. Izan ere, haurarentzat jolasa behar naturala da. Jolasaren bidez, fantasiak, nahiak eta bizi-penak askatzen ditu. Haurra oso txikitatik jolasten da jolasaren fantasiarako munduan murgilduz. Jolasaren bidez, haurrak ezagutza eta gaitasun ugari jasotzen ditu oharkabean. Haurrak, garapen osasuntsua izan dezan, behar-beharrezkoa du jolastea.

Gurasoek, irakasleek, aisialdiko hezitzaileek... uneak eta guneak eskaini behar dituzte haurren jolasetarako; batzuetan haurrak haien kabuz lasai jolasteko, besteetan, helduekin batera dibertitzeko. Ziztu bizian eta patxadarik gabe bizi garen garaioan, gero eta zai-

lago zaigu haurrek jolasteko tokia eta denbora aurkitzea, eta ahaztu egiten zaizkigu horrek gure haurrengan dituen ondorioak.

Horretarako, haur txikientzat, kalean, etxean edo eskolan egiteko, mota askotako abesti eta jolasak landuko ditugu: esku jolasak, sokasalto eta goma jolasak, parkean aritzekoak, biribilean jolastekoak, animazio jolasak...

Jolasen aukeraketa egiterakoan, batzuetan antzinako abestiak hautatu ditugu eta, besteetan, jolas eta kanta be-

riak aukeratu edota sortu ditugu. Horregatik, biribilean jolasteko proposamenak egiterakoan, *Kinkirrinera* abesti zaharrarekin batera *Punpala-plan* abesti berria ikasiko dugu.

Bestalde, bost urte arteko haurrentzat jolasa eguneroko bizitzan presente dagoen gauza da; emozioak adierazteko ezinbesteko tresna du. Horregatik, hezitzaileoi eguneroko bizitzarako oso erabilgarriak zaizkigun jolasak eta kantak ikasiko ditugu: jatekoak, sendatze-koak, magalean abestekoak, laztantze-koak, lo egitekoak...

Ikastaroaren helburu nagusia euskarazko jolasak hedatzea eta gizarteratzea da, hau da, jolasa euskararen normalizatorako tresna izatea. Horretarako, jolasak hizkuntzaren normalizazioan duen garrantzia azaltzearekin batera, irakasleentzat eta gurasoentzat interresgarriak diren hainbat puntu landuko ditugu: jolasa hizkuntza jarreretan eta jokabideetan eragiteko bide eraginkorra dela, nola transmititu euskararekiko jarrera positiboak jolasen bidez, hizkuntzarekin jolasteko bideak...

Azken finean, jolasteko eta abesteko dei berria egin nahi dugu ikastaroarekin... **oraindik ere badelako abesten duenik eta jolas egiten duenik.**



# Ikas estiloen eta ikas estrategien garrantzia hezkuntzan



## Iñaki PIKABEA TORRANO

PSIKOLOGOA. PEDAGOGOEA. PEDAGOGIAN DOKTOREA.  
EHUKO IRAKASLEA, FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA  
ZIENTZIEN FAKULTATEA

Zein da ezer ikasteko (hizkuntza bat, matematikak...) metodorik onena? Eta irakasteko? Eduki orearen didaktikaren historian, metodoaren kontzeptua

izan da nagusi. Irakasleok, gaur egun, jakin badakigu arrakasta edo porrota ez dela bereziki metodo-arazoa, pertsona-arazoa baizik. Eta pertsona esaten dugunean, bere osotasunean arigara: gaitasunak, motibazioa, nortasuna, jarrera, ezaugarri kognitiboak, estrategiak... aintzat hartuta, alegia. Azken batean, metodoa urrutiko lagungarria besterik ez da. Hortik ikerketa-bide berriak sortu dira, besteak beste, ikaslearengan ardaztutako irakaskuntza (Rubin eta Thompson, 1988; Oller eta Richards, 1973). Horrelako planteamenduek hainbat fenomeno hartu dituzte kontuan: adina, jarrera, motibazioa, nortasuna, ikas estiloa, ikas estrategiak, eta abar.

Candlin-ek (1991) garrantzi handiko galdera hau azpimarratzen zuen: nola eta zergatik lortzen duten ikasle batzuek ikastea, eta beste batzuek oso gutxi ikasten duten. Beraz, metodolo-

giaren nagusitasunetik, psikologia kognitiboaren nagusitasunera pasatu gara. Eta ezer aztertzekeo garaian, ikuspegi integrala izatea ezinbestekoa da. Gure kasuan, ikuspegi orokor horretan, kontzeptu hauei jarriko diegu arreta bereziki: ikas estiloei eta ikas strategiei.

Ikastaroan, ez gara ikas-estiloetan eta ikas estrategietan aditu bihurtuko, ez baitago horretarako behar adinako tarterik. Hala ere, bi esparru horien garrantzia ikusarazteko eta ikuspegi zabal samarra eskaintzekeo asmoa dugu. Irakasle aditu askoren kasuan, aurrez ezaugun zituzten ideiak eta susmoak beraztertuko dira, edota esperientziatik jasotako jakinduriari azalpen teorikoak erantsiko zaizkio. Bide batez, hainbat ariketa-eredu ere eskainiko dira, etorkizunean nor bere lanean egokitzeko eta burutzeko modukoak.



# Psikomotrizitatea 0-3 zikloan



## Elena HERRAN IZAGIRRE

PSIKOMOTRIZISTA ETA PSIKOLOGOA. EHUKO FILOSOFIA  
ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEKO IRAKASLEA.  
GARAPENAREN ETA HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA SAILA.

Aurtengo Hik Hasiren jardunaldien aurrean hausnarketatxo bat plazaratzeko grina sortu zait. Gizartearen eta hezkuntzaren arteko harreman historikoa zitzu bizian aldatzen ari da. Egun, hezkuntza sistemak gainezka egin du, gizarteak eskakizun asko egiten dizkiolako, eta irakasleen baja kopurua, terapiari bideratutako haur kopurua, hiperraktibitatearen hedapena, irakasleen etsipena edota ikasleen ezegonkortasuna zein arreta arazoak dira porrot horren ondorioa.

Haur Hezkuntzaren lehen zikloa ere -0-2 plus urte biko gelak- bere zeregina bete ezinean dabil. Testuinguruaren aldaketak, egungo haur txikia zaratsua, mugikorra, heldugabea, guratsua eta inbidiatsua bihurtu du, zailagoa baitzaio arretari, ordenuari edota interesari eustea. Hau da, egozentrismotik aldentzeko urratsak egitea, hezteko aurretiazko baldintzak gauzatzea, zaila bihurtu da. Garapenean esku hartzea ahalbidetzen duen psikomotrizitate sortutako hausnarketak, gako modura planteatuko ditut. Egungo haurrak, biharko helduak dira. Beraz, has gaitezten:

**1. Presarik ez,** mesedez! Lehenik, naturak agintzen duenean utzi behar zaio berea egiten. Oinez egiterainoko

segida naturalean -ahoz gora etzan, ahuspez etzan, katamarka, zerbaiti helduta altxatu, eta azkenik esku biak solte oinez ibiltzea- ez dago laburbiderik! Tranpa eginez gero, ondorio lazgarriak sortzen dira: oreka arazoak, postura desegokiak, ikasteko zailtasunak, arretaren kontrol eza, estrabismoa, eta abar. Ez dezagun ahaztu, ezta engainatu ere: alde fisikoa, psikikoaren oinarria da. Ondorio didaktikorik? Bada, gure zeregin nagusia testuinguru -berriro ere, fisikoa eta gizatiarra- lasaia sortzea eta hori zaintzea da. Heldugabe diren haurrekin harremanetan -fisikoa zein simbolikoa- jartzeko, alde batetik norberak prest egon behar du: gorputza erlaxaturik eta gertu, ahotsa lasai eta bero, begirada luzei eutsi, jarrera egonkorra eta lasaia izan, eta bestetik, gelak eroso, segurua eta material eta estimulu gutxirekin ondo atondua behar du izan. Patxadazitxaron behar dugu haiena egin dezaten, ezer erakutsi gabe. Konturatu orduko egin dute, benetan!

**2. Genetikoki sozialak** gara. Le-

hen haurtzaroaren funtzioa giza espeziearen prototipoa sortzea denez, gizaikiak bizitza osoan zehar garatuko ditu biziaren lehenengo hiru urteetan pizten diren gaitasunak. Hizkuntzak mugimendua ordezkatu bitartean, haurrak, gorputza baino ez du izango adierazteko. Mugimendua benetan eraginkorra izan dadin, proaktiboa -gogo eta gaitasunen arabera norberak sortua izan behar da. Aurrerantzean eta bizitza osoan zehar, gorputz horrekin disfrutatu eta sufritu egingo du. Horren ondorioz, esku-hartzeari begira zer? Bada, hasiera batean, betebeharrak asetzeko, bakarka erantzun behar zaie. Eskolak haurraren bigarren sozializazioa dakar. Eskolarekiko lehen harreman hori bereziki zaindu behar da, bakoitzaren erritmoa errespetatuz. Bertikaltasunaren kontrolarekin batera, gelakideen presentziaz, usainaz, negarraz, tenperaturaz... jabetzen hasten dira. Orduan, taldea lantzeko unea iritsi da: txandak, besteen ongizatea zein ondo ezak, besteei itxaron nahia edo beha-



rra, guztien arteko jarduerak, harremanak... bakarkako izaera tartekatuz. Urte bi eta erdirekin edo hirurekin taldea egina dago.

**3. Autonomia** haziera naturalaren oparia da. Beraz, haurri berari egiteko gai den guztia egiten utzi behar dugu. Ez dugu inolaz ere ordezkatu behar, baizik eta oso gertutik lagundu, fisiko-ki, behar-beharrezkoa denean bakarrik, baina laguntza sinbolikoa beti eskaini behar zaio, zalantzarik gabe. Estimulu moralak darabiltzan espezie bakar-garenez, hezteko, gizarteratzeko, inplizituki zein esplizituki etengabe erabiltzen ditugu. Esku-hartzeari begira oharrik? Bi, berriro ere: bata, alde materialari buruzkoa, eta bestea, moralari buruzkoa. Kontuz soberan edota apurtuta dagoen materialarekin: baztertu, gorde edo bota. Objektuak eta beren ezaugarriak ezagutzeko, arretari eutsiz, banan-banan eta astiro joan behar da. Askotan material larregi izateak, jarduera nahastea edo inbidiak piztea baino ez dakar. Negararekin kontuz:

haurtzaroan adierazpen sistema nagusia da eta adi egon behar da, haur bakoitza ulertzeko. Etsipena oso gertu dago, eta hori erakutsiko genieke negarrez denbora gehiegi utziz gero. Atsegin giroak izan behar du nagusi. Erakargarritasuna ere kontrolpean jarri behar dugu: kontuz haur gardenekin, inork ikusten ez dituen horiekin, zein mendekoekin, helduen behar handia dutenekin. Horiez gain, tankera askotakoak aurki daitezke. Esku-hartze anitz, eta inoiz magikoak, asmatu behar ditugu: inguru berrira egoki daitezen, gero eta autonomoagoak bihurtu daitezten, atxikimendu lotura tinkoagoa izan dadin, eta abar. Hori guztia asmatzea geure lana da.

**4. Jarrerak** dira txikien hezkuntza-aren altxorak. Egun, kontsumismoa geletara ere iritsi da. Ez soilik gauzetan edota objektuetan, baita jardueretan ere. Horregatik, edo gauza gehiago egiten dakigulako, neuronen arteko sinapsi gehiago sortzen dira burmuinean; gauza larregi egiten dira geletan.

Beno, amaitu arte ez dira egiten, hasi egiten dira, ondoren erdizka utziz. Hori aktibismoa deitzen zaio, eta aspaldian asko entzuten den arreta faltarekin batera, hiperaktibitate sindromearen oinarria da. Berriro ere, jardueren aurrean neurria, lekua eta unea aurkitu behar dira. Esku-hartzea ezinbestekoa da, baina mailakaturik. Haurrak zoratu nahi ez baditugu, lehen urtean, batez ere, zainketan izerdia bota behar da. Gela baranda batez zati daiteke berezko mugikortasuna gara dezaten, eta banakako beharrak erantzuten jarrai dezakegu. Bigarren urtean gauza gutxi batzuk talde handian egiten hasi behar dira, bakarkako uneak tartekatzen badiara ere. Hirugarrenean, aldiz, gauza komunak, gidatuak eta hezigarriak egin daitezke. Baina beti ere, jarrerak dira garrantzitsuenak. Nola jarri, hala burutu.

Gauza gehiago ere aipa ditzaket baina ikastaroaren nondik-norakoak ezagutzeko nahikoa da. Beste guztia, bertan. Ordura arte, ongi izan!



22. ale monografikoa  
hezkuntza euskalduntzea du  
gaitzat.

\* Euskalduntze datuak.

\* "Elebitasunetik eleaniztasunera" Nafarroan egindako jardunaldia.

\* Euskararen Kontseiluak prestatutako "Ikasle euskaldun eleaniztunak sortzen" txostena.

\* "Euskararen eta euskarazko egituraketa kualitatiboa" Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoarako Euskararen Erakunde Publikoaren txostena.

# Psikomotrizitatea: ekintzaren garrantzia haurraren garapenean (0-6)



## Alvaro BEÑARAN

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOAN LIZENTZIATUA.  
AUCOUTURIER PRAKTIKA PSIKOMOTRIZISTA ETA  
BERGARAKO PSIKOMOTRIZITATE ESKOLAKO IRAKASLEA

Ekintza, mugimendua, jolasa.  
Egiteko, mugitzeko, jolasteko aukera.

Egiteko, mugitzeko, jolasteko gogo/nahia.

Egiteko, mugitzeko, jolasteko gaitasuna.

Egite, mugitze, jolastearen plazerra.

Egiten duen haurra, mugitzen dena, jolasten duena. Eta plazerrean, sormenaz, seguritateaz eta konfidantzaz egiten duena, haur osasuntsua da.

Argi ikusten dugu hori.

Eta, hala ere, zergatik horrenbeste zailtasun prozesu horretan?

Zergatik dago haurra egiteko, mugitzeko, jolasteko beldurrez?

Zergatik ez du haurrak egiteko, mugitzeko, jolasteko gogorik?

Zergatik ezin du haurrak egin, mugitu, jolastu?

Zergatik ez du haurrak bizitzen plazerrean egitea, mugitzea, jolastea?

Egiteko, mugitzeko, jolasteko plazerra eta gogoia, norbaiten gogoan egon garelako sortzen da.

Geure ekintza, mugimendua, jolasa nahi izan duen norbait.

Guk egiteko, mugitzeko, jolasteko aukera eman digun norbait.



Bizitzaren hasieran gertatu da hori, haurra gorputz bat, denean, batez ere, hitzik ez dagoenean. Pentsamendurik ez dagoenean.

Eta horregatik, dena "landu" egiten da gorputz horretan, bere tonuan, bere mugimenduan, bere ekintzan, bere begiradan, bere sentsazio guztietan.

Psikismoa eta pentsamendua eraiki egiten diren gorputz oinarria da (gizakion zentzua ematen digun batekin harremanetan).

Neurozientziaren azkeneko aurkuntzetan ekintza eta mugimenduaren garrantzia, gizakiaren garapenean, baieztatzen ari da (norberaren ekintza eta mugimendua, eta baita besteena ere): "ekin egiten duen garuna, ulertu egiten duen garuna da" ("Las Neuronas Espejo", Giacomo Rizzolatti eta Corrado Sinigaglia. Paidós).

Nola sorrarazi egiteko, mugitzeko, jolasteko gogoia.

Nola eman aukera ekintzari, mugimenduari, jolasari.

Nola ziurtatu egiteko, mugitzeko,

jolasteko plazerra.

Horiek izan beharko lirateke Haur Hezkuntzaren helburu nagusiak.

Eta horretarako, hezitzaileok egiteko, mugitzeko, jolasteko gogoaz dugun bizipenez jabetu behar dugu.

Hori gabe, haurraren hazkuntza autotomoan oinarrituriko hezkuntzarik ez dugu inoiz lortuko.

Behin eta berriro zuzendutako irakaskuntzan arituko gara, haurraren sormenezko gaitasunetan konfidantzarik ez duen irakaskuntzan.

Haurrari bere hazkuntzaren prozesuaren protagonista izatera lagunduko dioten jarrerak, markoak eta heziketa estrategiak landu ditzagun. Seguritatean, konfidantzian, autonomian.

Beren egitean zentra daitezen, hezitzailearen plazerrezko begiradaren aurrean. Horrela des-zentrazioa iritsi daitezen, beren egiteko, mugitzeko, JOLASTEKO gogoia konpartitzeko (hots, hazi, egituratu, ikasi...).

# Adimen emozionala: umorearen erabilera



Ibon DE LA CRUZ

PSIKOLOGOA

Emozioak lantzerakoan, irakasle moduan, hainbat tresna aurkitzen ditugu.

Aurten, umoreaz arduratuko gara.

Barre egingo dugu, jakina, eta oso ongi pasatuko dugu baita ere, baina gure helburua bestelakoa da.

Umorea ez da soilik errealitateetik ihes egiteko tresna; errealitateari ere, umorez aurre egin diezaiokegu.

Hori dela eta, geure ikastaroak ezaugarri bereziak izango ditu:

- Ikasle bakoitzak garatu nahi duguna bere baitan landuko du, besteekin erabiltzeko. Askotan, irakasleok zenbait gauza irakasten ditugu, baina ez ditugu, geure barnean, prozesu horiek burutzen.

- Ikastaroa, eraikuntza da. Umorea lantzeko, metodologikoki egin behar da lan. Ezin dugu eduki emozionala edonola landu. Prozesu hori jarraitzen ez badugu, umorearen xarma desagertuko da.

- Naturala da. Ikusiko dugunez, gizaki guztiek umorea dute bere barnean. Batzuetan umore hori serioa da, beste batzuetan isekaria, edo azkarra... Geure helburuetako bat, partaide bakoitza bere umoreaz jabetzea izango da.

- Alde teorikoa txiki-txikia izango da. Ikastaroaren amaieran bibliografia



eta filmografia emango dugu. Interesatzen zaiguna, zera da: norberak, bere barnean prozesu emozionala sentitzea (prozesu dibertigarria, jakina).

- Umorearen pisua ez da irakasle-pailazo batean egongo, baizik eta taldean. Taldeak lortuko du lortu behar dena.

- Norbera hobe sentitzea emaitza naturala da, baina ez helburua. Gure helburu nagusia soziala da; besteengan

eragitea, ahal dugun neurrian, gure gizartea hobetzeko.

- Ikastaroa amaitzean, partaideek hainbat baliabide izango dituzte eskura, berehala erabiltzeko prest.

Puntu horiek guztiak kontuan izanda, edozein gai landu dezakegu: lotsa galdu, gorputzari beldurra kendu, komunikatzeko trebezia handitu, irudimena landu, talde giroa sendotu...

Barre egiteko prest?



# Wikiak eta webquestak irakaskuntzan



## Maite GOÑI

ORDIZIAKO JAKINTZA IKASTOLAKO IKT TALDEKO  
PARTAIDEA ETA EUSKALJAKINTZA EGITASMOAREN  
ARDURADUNA

Teknologia berriek ekar diezazkiguketan onuz asko hitz egin bada ere, zenbaitetan zalantzan jartzeko, ez dago dudarik ezinbesteko bihurtu direla egun bizitzaren alor guztietan. Irakaskuntzan ere horrela izan da; izan ere, teknologia berri horiek ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan laguntzeko ate ugari zabaltzeaz gain, baliabide interesgarriak ipini baitituzte gure eskura. Alde batetik, erabilerrazak diren eta instalaziorik behar ez duten tresnei buruz ari gara; bestetik, hori baino garrantzitsuagoa den ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ulertzeko modu berri batez. Tresna eta filosofia berri horiek ikasleen partaidetza, autonomia eta el-karreragina modu erakargarrian eta dohainik susta dezakete eta, irakasleoi dagokigunez, multimedia baliabideez osatutako jarduerak diseinatzeko baliagarriak gerta dakizkiguke, sarri ikasleen motibazioa pizten lagunduz.

Gauzak horrela, ikastaroaren helburu nagusia sareak eskaintzen dizkigun erreminta horietatik bi, sakonki eta praktikoki ezagutzea izango da: wikiak eta webquestak.

Wikiak, ezaugarri bereziko webguneak dira. Gune horietan hainbat erabiltzailek orrialdeak sor, edita, ezaba eta eralda ditzakete,aldi berean zein

une desberdinetan arituz. Aipatutako izaera berezi horrek, batik bat, lankidetzan aritzeko eta elkarlanean idazteko tresna ezin hobe bihurtzen ditu. Prozesu osoan zehar egindako aldaketa guztiak gordeta gelditzen dira eta nork eta noiz egin dituen ere, ikus daiteke. Wikipedia da wiki baten adibiderik ezagunena.

Webquestak, ikerketara zuzenduriko jarduerak prestatzeko diseinatutako webguneak dira. Erabiltzen eta kudeatzen den informazio guztia edo ia guztia saretik dator eta, konstruktibismoaren ildotik, ikasleak aztertu, sintetizatu eta ebaluatzen bultzatzen ditu, besteak beste. Irakasleek diseinaturiko jarduera horrek ikasleak aktiboki parte hartzea du helburu, baita lankidetzarikaskuntza, nahiz denborari etekin handiagoa ateratzea ahalbidetzea ere. Ikasleak ordenagailu aurrean, nora ezeean, informazio bila jartzea ohikoa izaten da, bilaketa prozesuari denbora gehiago eskainiz, informazioaren tratamenduari eta eraldatzeari baino. Bada, ongi egituraturako webquesta azken

horren atzetik joango da. Webquestek hainbat atal dituzte, eta atal bakoitzak jardueraren helburua, nondik norakoa eta balorazioa argi zehazteko aukera ematen du, irakaslearen hausnarketa sakona eskatuz: ikasleak lanean jarri aurretik, alde batetik; eta, bestetik, ikasleari jarraibide zehatz eta argiak emanez.

Wikiak eta Webquestak zertarako erabil daitezkeen aztertuko dugu, abian dauden esperientziak ezagutuko ditugu, adibide ugari ikusiko ditugu eta, batez ere, tresna horiek sortzen, kudeatzen eta multimedia baliabideez aberasten ikasiko dugu. Ikastaroaren amaierarako partaide guztiak webquest eta wiki bana sortuko dituzte, eta horietan, irudiak, audioak eta bideoak txertatuko dituzte.

Ikastaroaren helburua wikiak eta webquestak sortzen eta kudeatzen ikastea izanik, beronen izaera, batik bat, praktikoa izango da, nahiz eta erreminta horien oinarri pedagogikoak ere, aipatu eta azalduko diren.



# Blogak irakaskuntzan



## Mikel ETXARRI

ORDIZIAKO JAKINTZA IKASTOLAKO WEBMASTERRA.  
LH ETA DBHKO IRAKASLEA

Blogak “moda” bat baino zerbait gehiago dira. Interneten izan den “iraultzaren” motorra izan dira. Horien bidez, Interneteko erabiltzaileen artean komunikazio bide berria zabaldu da, informazioa eta ezagutza zabaltzeko eta partekatzeko filosofia berria eta, nola ez, irakaskuntzan dihardugunontzat gure ikas prozesuetan eragiteko aukera berria.

Zalantzarik gabe, 2005. urtea blogen iraultzaren urtea izan zen. Blogarien hazkundera izugarria izan da eta 80

milioi blog baino gehiago aurki daitezke orain. Horren ondorioz, blogen inguruan sortu eta garatu diren tresna eta aplikazioen kopurua, blogen garapenerekin batera, etengabe hazten joan da. Blogarien beharra asetzerako datozen aplikazio horiek era guztietako eginkizunak betetzen dituzte: bidegintza, argazkigintza, musikagintza, testugintza...

Ikastaroaren lehen zatian, bloga sortuko dugu eta arestian aipatutako baliabideak ezagutuko ditugu. Baliabide horien eta blogen arteko uztarketa praktikara eramanez, blogek duten ahalmenaz jabetu eta irakaskuntzan egin dezaketen ekarpena aztertuko dugu.

Sarean topa daitezkeen blogen izaera anitza izanik, horietako asko helburu didaktikoekin sortu dira. Horiek dira, hain zuzen ere, *edublog* izenez ezagutzen direnak. Egia esan, ez dira gutxi blogak irakaskuntzan erabiltzeko egon daitezkeen arrazoiak:

- 1) Erabilerrazak dira.
- 2) Multimedia dira, alegia, testuak, irudiak, animazioak, ahotsak eta bideoak biltzeko euskarria eskaintzen dute.

3) Ikasleen partaidetza bultzatzen dute: metodologia eraikitzailearen baren tresna eraginkorak dira.

4) Gure egunerokoan erabiltzen ditugun beste hainbat baliabideekin konbinatuz, ikasleen kompetentziak lortzeko oso baliagarriak dira.

5) Blogak eta horien inguruan erabil daitezkeen aplikazio guztiak doakoak dira.

Blogaz gain, Web 2.0 berri horretan badira hezkuntzan erabilgarritasun aparta eduki dezaketen beste hainbat tresna. Horietako gehienak lankidetzan oinarritutakoak dira, informazioaren trataera era partekatuan gauzatzeko balio dutenak. Hor daude wikiak, portfolioak edota RSS jarioa oinarri duten aplikazioak, besteak beste. Horiek guztiek, taldeko lanean oinarrituta, ekoizpen mota askotarikoak lantzeko aukera aparta eskaintzen digute. Horrez gain, ikasleen artean ikuspuntu demokratikoagoa zabaltzea ahalbidetzen digute.

Azken hori izango da ikastaroaren bigarren zatian landuko duguna, hau da, zenbait ikasblog eredu aztertu eta eredu bakoitzak eskaintzen dituen aukerak baloratuko ditugu.





# Irakaskuntza 2.0: WEB 2.0 baliabideak eta kompetentzia digitala



## Jokin LACALLE

ORDIZIAKO JAKINTZA IKASTOLAKO IKT DINAMIZATZAI-

LEA. BATXILERGOKO FISIKAKO IRAKASLEA

XXI. mende hasierako Informazioaren Gizartean IKTen presentzia geroz eta nabarmenagoa da gure eguneroko bizitzan. Teknologiaren eraginez giza-harremanak, ezagutzaren kudeaketa, elkar komunikatzeko bideak... asko aldatu dira. Zitzu bizian gertatu diren aldakuntza horiek eragin zuzena izan dute irakaskuntza arloan.

Gizartean gertatzen ari diren aldaketa sakon horien aurrean, irakasleok bizitza osorako etengabeko formazioaren beharra nabaritzen hasiak gara. Informazio iturriak ohiko ezagutza erdigune klasikoetatik kanpo aurkitzea arrunta bihurtu da. Aldizkari, telebista edota mota guzietako webguneak gure etengabeko prestakuntza ez-formalaren zati garrantzitsu bilakatu dira.

Informazio iturri horietatik biltzen dugun informazioa askotan dosi txikietan eta modu ez-egituratu batean izaten da. Hori dela eta, informazioaren traterera egokirako estrategia eraginkorrak bilatzea derrigorrezkoa dugu, etorkizunerako geure burua ondo prestatu nahi badugu.

Ikastaroan, gure unitate didaktikoen diseinuan, gure saio lektiboaren garapenean eta azken ebaluazioa gauza-

tzean beharrezko izango dugun informazioa modu erraz eta eraginkorrean

bilatu, jaso, antolatu eta partekatzeko tresnak erabiltzen ikasiko dugu.





**Xabier LERTXUNDI**

IRAKASLEA

Photoshop eguneroko irudiak hobetzeko eta egokitzeko erabil dezakegun programa osatuenetakoa da.

Teknologia Berrien erabilerak hainbat tresna digitalen ezagutza eta menperatze maila egokia exijitzeaz gain, software (programa) egoki bat ezagutzera behartzen gaitu.

Photoshoparekin, irudiei itxura berri eman ez ezik, trukatzeko eta montaje izugarriak egiteko ere, gai izango gara.

Irudia tratatzeko programa profesional baten aurrean gaude, ikastetxe-ko eguneroko lanetarako emaitza perfektuak eta soluzio izugarriak lortzen lagunduko digun programa batean aurrean, hain zuzen ere.

Ikastaroan Photoshopek dituen oinarrizko aukerak ikusi eta landuko ditugu.

Horretarako, Photoshop programa ardatz hartuta, zera ikasiko dugu:

- Sarrera: lan tokia ezagutu.
- Irudiaren erresoluzioa eta neurria (inprimatu, weberako edo aurkezpen baterako).
- Esploratzailea.
- Paleta nagusienak ezagutu.
- "Erremintak" ezagutu.
- . Pintzela, "makil magikoa", "klonatzeko tanpoia", selekzio erak, lazoak...

- Artxibo motak: psd, jpg, gif, bmp (ezaugarriak, erabilerak).
- Kapak: erabilera eta aukerak.
- Testua landu.
- Kolorearen tratamendua: distira, kontrastea, kurbak, zuzenketak...
- Filtroen erabilera.

### Ariketa praktikoak

- Eskaneatu (erresoluzio egokiak).
- Irudi baten pisua aldatu (weberako egokitu).
- Irudi bati fondoa kendu.
- Irudi desberdinekin muntaiak egin.
- Web galeriak egin.
- Argazki zahar bat berritu.
- Begi gorriak zuzendu.
- Kartelak eta iragarkiak egin.

- Argazki bat hobetu: kolorea, argitasuna, enfokea...
- Pertsona baten azalaren itxura gaztetu.
- Txuri-beltzeko irudi bat koloreztatu.
- Argazki baten tonu desberdinak lortu: sepiak...
- Tutorialak ezagutu:
  - . Hainbat estilotako testuak sortu: suaren itxura duten letrak, urrezkoak, kristalezkoak, izotz itxurakoak...
  - . Irudiak deformatu.
  - . Askotariko testurak sortu.
- Photoshopi buruz Interneten dauden hainbat helbide ezagutu (trukoak, efektuak, tutorialak, foroak...).



# Irudi eta soinu digitala (oinarrizko maila)



**Fultxo CRESPO**

BIANAKO ERENTZUN IKASTOLAKO IRAKASLEA

Deialdian azaltzen den moduan ikastaroaren helburua bi esparru horietan (hau da, irudian eta soinu digitalean) oinarritzko prestakuntza eskaintzea da, programa errazak erabiliz. Horrez gain, askotan ahazten dugu baliabide horiek hezkuntzan izan dezaketen erabilpena, eta horren inguruan jarduera eta ideia dezente proposatuko ditugu.



Jarraian ikastaroaren edukiak dituzue:

- Irudi digitala. Argazki onak ateratzeko gomendioak.

- Picasa programa: argazkien antolaketara eraginkorra. Oinarritzko moldaketak. Atalka lan egitea.

- Inprimaketa. Posterrak. Diapositiba aurkezpenak. Oparitzeko CD-ak. Argazkiak esportatzea.

- Picasaweb: on-line albumak.

- CD bateko abestiak MP3ra pasatzeko prozedura. (CDex)

- Soinuak grabatzeko eta editatzeko prozedura (Soinu grabagailua, Audacity). Irrati saioak. Proiektuen esportazioa MP3 / wav formatura.

- Soinuaren, bideoen eta irudien txertaketa testu prozesadoreetan eta aurkezpenak egiteko programetan. Ohiko arazoak. Trukuak.

- Interneteko baliabideak (soinuen eta irudien biltegiak).

- Gelarako ideiak eta jarduera pedagogikoak. Adibideak.

Ikastaroa praktikoa izango da baina gogoetarako denbora eskainiko diogu, batez ere. Ikastaroaren apunteak, programak eta bestelakoak wiki honetan topatuko dituzue: <http://irudia.wikispaces.com/>.



# Bideoa: editatzen ikasteko, pinnacle studio 9 programa



## Pelai EIZAGIRRE DE GARATE

PADEKO (HEZIKETARAKO IKUS-ENTZUNEZKO DIGITALEN PRODUKZIOAK) ERREALIZADOREA ETA GERENTEA. IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA TELEBISTA SAIOAK EGITEN ESPERIENTZIADUNA

Beste osagaiekin batera, bideo digitala material didaktiko moduan erabil daiteke. Horretarako, ordea, azken teknologiak eta haien erabilerak ezagutu behar dira, eta hori da ikastaroan landuko duguna. Bideo digitalaren edizioa eta DVDa nola egiten diren ikusiko dugu.

Horretarako, edizio digitala egiteko behar diren bitartekoak erabiltzen ikasiko dugu; bereziki Studio programa, eta haren osagarriak.

Studioren bitartezko *Edizio Digital Ez Lineala*-ri esker, nahasketa mahai tradizionala, ediziorako sistema digital baten bidez konektatutako bi bideoe-

kin ordezkatu daitezke. Aldi berean, post-produkzio ona egiteko behar den guztia eskaintzen du: trantsizioak, filtroak eta abar.

Edizio Digital Ez Linealak, hots, editatzeak, edo Studiorekin lan egiteak, zera dakar: lehenik eta behin, bideoak, argazkiak, audioak, animazioak eta abar lortzea. Bigarren urratsean, elementu horiei guztiei forma emango zaie, editaiekin. Kontuan hartu behar dugu zenbait elementuri trataera berezia eman beharko zaiela: formatu aldaketa, filtroak, ukituak... Azkenik, behin elementu guztiak nahastutakoan, esportatu egingo ditugu, edo beste modu batera esanda, nahi dugun sistemara aterako ditugu: DVD zintara edo *avi* artxibora, gero aurkezpen multimedia batean sartzeko.

Azken emaitza, edizioan jartzen den interesaren eta ahaleginaren araberakoa izango da. Studio programa zabala da, beste "plug-in" batzuetara irekia dago. Modu horretan, "plug-in" egokia aurkituz gero, bertsio estandarrean irudikaezinak diren gauzak egin daitezke.

Studioan, lehen zatia da gogorrena, hots, lanerako irizpide teknikoak ezartzea. Baina, hori guztia jakin beharra dago. Gainerakoa, nahasi samarra izan litekeen arren, dibertigarria, ulerterra-

za eta praktikoa da: trantsizioak egitea, planoak kentzea, filtroak ezartzea, espazioak animatzea...

## Edukiak

Ikastaroan landuko diren edukiak hauek izango dira:

### \* **Proiektuak sortzea:**

- \* Proiektuaren antolaketa
- \* Proiektu berria ireki
- \* Proiektu baten osagaiak
- \* Proiektuaren egitura
- \* Proiektua gorde
- \* Zer dira klipak, sekuentziak, planoak...

### \* **Bideoarekin irudiak hartzea:**

- \* Bideoaren atzemate txartelak
- \* Hardware eta softwarearen bidez ulertzea
- \* Atzemate iturriak zehaztea
- \* Atzemandako bideoa gordetzea

### \* **Bideo kanalak:**

- \* Bideoaren kanaletan stream sartzeta
- \* Irudi finkoak sartzeta

### \* **Bideoaren editaia eta muntaia:**

- \* Editatzeko erreminten erabilpena
- \* Mozketa
- \* Lekuz aldatzea
- \* Denbora doitzea
- \* Desegitea
- \* Inseto delakoaren bidez editatzea

### \* **Filtroen erabilpena**

### \* **Gardenkien erabilpena**

### \* **Soinu kanalak**

### \* **Izenburuak**

### \* **Proiektuak esportatzea**

### \* **Bideo formatuak:**

- \* Formatu motak
- \* Bideo euskarriak



# Karaokea editatzen ikasi



## Xabier ZABALA

JAKINTZA IKASTOLAKO MUSIKA IRAKASLEA. MUSIKARIA, KONPOSITOREA ETA MOLDATZAILEA. HIK HASI PROIEKTUKO HAINBAT LANEN EGILEA. "PIRRITX ETA PORROTX" PAILAZO TALDEARENTZAT ABESTIEN KONPOSITOREA ETA MOLDATZAILEA.

"Play-back" a eta karaokea gelan erabiltzeko baliabide egokiak izan daitezkeela garbi dago. Abestiak ikasteko erabil ditzakegu eta horrekin batera, euskara lantzeko ere balio dezakete. Ikastaro honen bidez, norberak bere karaoke pertsonala izateko aukera izango du.

Landuko dugun edukia hau izango da:

1.- BAND IN A BOX. Moldaketak egiten. Software hau ikasiz, nahi ditugun play-backak sor ditzakegu. Eskolan, txirula jotzeko, kantatzeko eta abar, oinarri gisa erabil dezakegu. Aurrerago karaoke bat sortu nahiko bagenu, oinarri hori baliatu ahal izango genuke.

2.- BAND IN A BOX-SONAR. Melodia sartzen. Melodia sartzeko hainbat modu ikasiko ditugu.

3.- BAND IN A BOX-SONAR. Karaokeak sortzen. Hitzak sinkronizatzen eta karaokeak sortzen ikasiko dugu.



# atzeko atetik



**Txitxi ORBEGOZO**

MARGOLARIA

Kirola zen nire bizitza, eta kirolari begira bizi nintzen. Gorputz ariketa, behaketa eta lanketa fisikoa bizitzeko beste modu bat da, margotzea edo gus-tuko duzun edozein jarduera izan daitekeen bezala. Margotzea, konparaketa-ekin jarraituz, kirola modu profesio-nalean edo formalean egitearen aurka-koa da. Marraztean, dena ahazten dut eta nire gorputza dudaren kontzien-zia joango balitzait bezala sentitzen naiz. Lehen egiten nuenaren aurkakoa, hain zuzen ere. Zenbat denbora pasa ote dut gorputzak ikusten? Gorputzak lantzen? Lana barrutik eta dedikazio osoz egiten denean, onura asko jasotzen dira, baina gainbehera datorrenean, kolpeak ere tamainakoak izaten dira. Nire bizitzan aldaketarako garaia etorri zen, eta margotzeak bizitzeko bide berriak ireki zizkidan.

Eskultore baten lanak interesatu zitzaizkidan lehendabizi, haren pasioa ikusi nuen eta ezin nuen sinetsi; hark sentitzen zuen gauza bera sentitu nahi nuen. Margotzen hainbeste disfruta-tzen zela ikusita, hori sentitzeko gogoa piztu zitzaidan. Nire gorputza oso ongi ezagutzen nuen eta besteena ere bai; kirolak eman dit hori. Eta, koadroekin ere, argazkiekin egiten nuen gauza be-rra egiten hasi nintzen, hurrengo egunean margo paleta bat erosita. Behatzeko gaitasuna da, finean, margotzea. Jende-

## Marrazten ikasi garunaren eskuineko aldearekin


ak hainbat gaitasun ditu eta behatzeko ere, batzuek besteek baino gaitasun handiagoa dute, baina ikas daiteke, eta garatu ere bai.

Margotzea, adieraztea da, baina errealitatea norberaren ikuspuntutik filtratuta, eta norberak nahi duen modura espresatu behar luke. Gauzak, hainbat eratarik ikusten eta adierazten ditugu denok, eta horrela izan behar du gainera, baina norberaren ikuspegia bakarra dela, eta zeinen garrantzitsua den, horretaz kontziente al gara? Giza-banakoaren aberastasun indartsuaz ari naiz.

Garrantzitsua da, irakasleak gaitasunak izatea, ondoren ikasleei transmititzeko. Irakasleak ikusten badaki, behatzen badaki, ikusten eta behatzen irakatsiko du. Ezinezkoa da margolari ona izatea gauzak diren moduan adierazten jakin gabe. Bizitza aurreiritzirik

gabe, epaitu gabe ikusteko gaitasuna edukitzea, eguneroko bizitzan jokatze-ko eraren edo bizimoduaren adierazle da. Errespetu eta tolerantzia jarrera lantzen da. Errealitatea den bezala, objektiboki, adierazteko gai dena edozer gauza egiteko gai dela iruditzen zait.

Behatzen jakitea gaur egungo giza-kiaren oinarriko gaitasuna dela uste dut, eta ez dakit ikastetxeetan hori bermatzen den, biderketak egiten ikastea bermatzen den moduan. Idazten jakitea bezain garrantzitsua izan beharko luke artistikoki adierazten jakiteak. Ikasleek ezin dute ikastetxetik atera begiratzen ikasi gabe. Bizitzan, oinarri-koa da. Gaur egun beste arlo batzuei garrantzi gehiegi ematen zaie eta ez da-go lanak baloratzeko ez irizpiderik, ez ardatzik. Arituz, ikasi, konpartitu eta bide irekitzen da.





2008-2009

ikasturterako eskaintza

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK

## FORMAZIO ARAUTUA

**IRAKASLE IKASKETAK:** *(lana utzi gabe 2. diplomatura egiteko aukera)*

- > Haur Hezkuntza espezialitatea
- > Hezkuntza Berezia espezialitatea
- > Atzerriko Hizkuntza espezialitatea
- > Heziketa Fisikoa espezialitatea
- > Entzumena eta Mintzaira espezialitatea
- > Lehen Hezkuntza espezialitatea

**PSIKOPEDAGOGIA LIZENTZIA:** *(bigarren zikloko lizentzia)*

*On-line eta erdi presentziala, Bilbon nahiz Eskoriatzan*

- > Hizkuntzen Psikopedagogia
- > Esku-hartze Psikopedagogikoa

## GRADUONDOAK

- > Hizkuntzen Kudeaketa *(Aditu titulua)*
- > Prestakuntza Pedagogikoa *(Aditu titulua)*
- > Euskal Kulturgintzaren Transmisioa *(Aditu titulua, 2009ko urtarrilean hasiko da)*

## DOKTOREGO PROGRAMA

- > Humanitateak eta Hezkuntza etrokizuneko erakundeetan

INFORMAZIO GEHIAGORAKO:

**HUHEZI**

(Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea)  
Dorleta auzoa z/g, 20540 Eskoriatza - GIPUZKOA  
Telefonoa: 943 711157 - Faxa: 943 711032

**EAEn****GARATUplangintza**

<b>Kodea</b>	<b>Ikastaroa</b>	<b>Orduak</b>	<b>Tokia</b>
204	Arte garaikidea: mugimendu, korrante eta joerak ulertzeko gakoak	20	Gasteiz
205	Arte garaikidea: mugimendu, korrante eta joerak ulertzeko gakoak	20	Eibar
220	Gizarte arloko klaseak emateko IKTko tresnak	30	On-line
317	Eduki multikulturalak gaurko Gizarte Zientzietako ikuspuntutik	20	Gasteiz
318	Eduki multikulturalak gaurko Gizarte Zientzietako ikuspuntutik	20	Eibar
352	Kultura arteko hezkuntza: pentsatu, sentitu eta egin.	20	Gasteiz
353	Kultura arteko hezkuntza: pentsatu, sentitu eta egin.	20	Bilbo
354	Kultura arteko hezkuntza: pentsatu, sentitu eta egin.	20	Eibar
360	Musika eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna	25	Gasteiz

**IRALE plangintza**

<b>Kodea</b>	<b>Ikastaroa</b>	<b>orduak</b>
I040	Euskararen erabilera eragiteko estrategiak eta tresnak (Ebeta)	20
H447	Curriculumaren Euskal dimentsioa, Euskal Curriculum, zertaz ari gara?	20
H542	Irratia eskolan interneten bitartez	20
H444	Gure historia, euskal literatur lanen argitan	20
H542	Blog-ak: oinarriak, esperientziak eta praktika.	20
H542	Ordenagailu eta interneten erabilera musika gelan	15
H542	Hizkuntza lanabesak amaraunean	15
H448	Soziolinguistika nola irakatsi?	20
H445	Kontzertuetik mintzatzera: ipuina, hitz egiteko baliabidea	15
H240	Kontuz, otsoa datorrela! Edo erdarakaden hatsa garondoan sentitzen dugunean	15
H543	Euskal literatura sarean	15
H444	Azken urteotako narratiba laburra: motzean handi	20
H340	«Definiciónetik definiziora: ikasmaterialen itzulpena»	10
H442	Jende aurrean hizkera jasoan mintzatzeko gaitasuna nola landu.	20
H446	Haur kantak eta jolasak	10
H442	Komunikazio pertsonala eta profesionala eraginkorra	20
H445	Ipuin tailerra.	20
H445	Euskal mitologia eta ipuinak: ipuin tailerra	20

**APATXIN formazio plangintza.**

Haurreskolen Partzuergoan lanean diharduten hezitzaileentzako UEUk diseinatu duen formazioa da APATXIN! egitasmoa. 2007/2008 ikasturtean egin zen formazio egitasmo hau lehenengoz eta bertan 45 ikastaro burutu ziren. 2008/2009 ikasturteko proposamena jakintza eta esperimentazio arloetan banatu dugu: haurraren garapenari, hezitzaile eta haurren arteko elkarrekintzari eta hezitzaileen kompetentziei eman zaie garrantzia.

**NAFARROAn****Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ) eta Irakasleen Laguntzarako Zentroa (ILZ)**

Uharteko EIBZrekin elkarlanean dihardugu. Bai eta Iruñeko eta Lekarozeko ILZrekin ikastaroak antolatu ere. Oraindik 2008/2009 ikasturteko eskaintza zehaztu gabe dagoen arren, ikastaro hauen berri gure web gunean izango duzue.

**IPAR EUSKAL HERRIAN****SEASKA**

SEASKA Ikastolen Federakuntzari formazio plana 2008/2009.

**Sare pribatua**

- Euskararen didaktika ama-eskolan eta lehen mailan.

Bestalde, tokiko hainbat elkarteekin partaidetzan, mintzaldi eta formazio zikloak antolatuko dira, hala nola, ATABAL, UDALEKU eta ELKARTE BIZIA formazio planaren bigarren zatia